


eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea



Zuzenbide Fakultatea
Facultad de Derecho

Europar Batasunean frogak lortzea: bilakaera, behar berriak eta Europako Ikerketa Agindua

Gradu Amaierako Lana

Zuzenbideko Gradua

2018/2019 Ikasturtea

Egilea: Amaia Goikoetxea Nazabal

Zuzendaria: José Francisco Etxeberria Guridi

AURKIBIDEA

| | |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----|
| LABURDURAK..... | 3 |
| 1. SARRERA..... | 4 |
| 2. ELKARREKIKO LAGUNTZA JUDIZIALEKO INSTRUMENTUAK..... | 5 |
| 3. ELKARREKIKO AITORTZA PRINTZPIOAN OINARRITUTAKO TRESNAK..... | 8 |
| 3.1. Ondasunen prebentziozko enbargoa edo frogak segurtatzeko ebazpenak..... | 10 |
| 3.2. Frogak lortzeko europar exhortoa..... | 11 |
| 3.3. Ikerketa eta frogak lortzeko tresna bakar baterantza..... | 14 |
| 4. HASIERAN IKERKETARAKO EXHORTO EUROPARRA DEITUA IZAN ZEN ZUZENTARAUAREN PROPOSAMENA: ELKARREKIKO AITORTZA PRINTZPIOAREN MALGUTZEA..... | 16 |
| 5. EUROPAKO IKERKETA AGINDUA..... | 17 |
| 5.1. Aspektu orokorrak..... | 17 |
| 5.2. Definizioa eta aplikazio eremua..... | 20 |
| 5.3. Europako Ikerketa Aginduaren prozedura: igorpena eta exekuzioa..... | 22 |
| 5.3.1. Agintaritza eskudunak..... | 22 |
| 5.3.2. Igorpenerako baldintzak eta transmisioa..... | 24 |
| 5.3.3. Aitortza eta exekuzioa..... | 28 |
| A. Errekurtsoak..... | 29 |
| B. Aitortza eta exekuzioa ukatzea..... | 31 |
| a. Estatu exekutatzailearen legean, EIAren exekuzioa eragozten duen pribilegio baten existentzia..... | 34 |
| b. Segurtasun nazionaleko interesak kaltetzea, informazio iturriaren babesa edo inteligentzia jardueren inguruko informazio sailkatua erabiltzea..... | 35 |
| c. “Lurraldetasun klausula” deiturikoa..... | 36 |
| d. EIAren exekuzioaren bateraezintasuna EBH 6. artikulutik eta EBOEGtik eratorritako obligazioekin..... | 37 |
| e. Portaeraren tipifikazio bikoitza falta izatea (edo kriminalitate bikoitza)..... | 39 |

| | |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------|----|
| f. Neurria exekutatzea ez egotea Espainiako legeriak antzeko barne kasu baterako baimendua..... | 40 |
| 6. IRITZIA ETA ONDORIOAK..... | 41 |
| BIBLIOGRAFIA..... | 44 |
| ARAUDIA..... | 50 |

LABURDURAK

art./k: artikulua/k

Cdo: Considerando

DO: Diario Oficial

DOC: Diario Oficial de las Comunidades Europeas

DOUE: Diario Oficial de la Unión Europea

EB: Europar Batasuna

EBFH: Europar Batasuneko Funtzionamendu Hitzarmena

EBH: Europar Batasuneko Hitzarmena

EBJA: Europar Batasuneko Justizia Auzitegia

EBOEG: Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutuna

EE: Esparru Erabakia

EIA: Europako Ikerketa Agindua

EIAZ: Europako Ikerketa Aginduaren Zuzentaraua

GEEA: Giza Eskubideen Europako Auzitegia

JAI: Consejo de Justicia y Asuntos de Interior

LRM: Ley de Reconocimiento Mutuo (23/2014 Legea, azaroaren 20koa, Europar Batasunean zigor-arloko ebazpenak elkarri aitortzeari buruzkoa)

LRMRP: Ley de Reconocimiento Mutuo de Resoluciones Penales en la Unión Europea (3/2018 Legea, ekainaren 11koa, Europar Batasunean zigor-arloko ebazpenak elkarri aitortzeari buruzko azaroaren 20ko 23/2014 Legea aldatzen duena Europako Ikerketa Agindua arautzeko)

MF: Ministerio Fiskala

or/orr: orrialdea/k

zk: zenbakia

1. SARRERA

Europako integrazio prozesuak pixkanaka-pixkanaka merkatu komun batean oinarritutako helburutik, Batasunaren esparruan herritarren askatasuna bermatzera bideratutako anbizio handiagoko beste batera eboluzionatu du eta helburu hori lortzeko garaian, funtsezko mugarri nagusietako bat Lisboako Ituna onartu ondorengo Batasuneko Askatasun, Segurtasun eta Justizia esparrua finkatzea izan da¹.

Europar Batasun osoan zehar pertsonen, kapitalen eta merkantzien zirkulazio espazio bakar bat eraikitzeak, nazioz gaindiko kriminalitatearen gorakada ekarri zuen. Eredu bakar honek zekartzan erronkei aurre egin ahal izateko, kriminalitatearen aurkako borrokan, Batasunak, justizia penalak eragozpenik gabe jardutea behar zuen espazio bakar horretan eta arau homogeneo batzuen arabera². Horrela, justizia penalaren esparruan lankidetzaren polizial eta judizial altua lortu nahi duen eta barne segurtasuna eta mugaz gaindiko delituen aurkako borroka erraztuko duen europar espazio publiko komun bat sortuz.

Nazioz gaindiko fenomeno edo fenomeno globalizatuen aurkako borroka honek, eraginkorra izan dadin, nazioarteko erakundeen (eta, noski, EBren) ahaleginak bateratzea suposatzen du kriminalitate forma horien eraztean emaitzak lortzeko.

Errealitate honen aurrean, EBk, bere helburu desberdinen artean, Tratatu eta Ekintza Programetan zehar, estatu kide desberdinetako zigor arloko legegintzen hurbilketa lortu nahi izan du, horretarako, ebazpen judizialen elkarrekiko aitortza printzipioan oinarritutako lankidetzaren judizial penala sustatuz.

¹ EBFH 67.1 eta 67.3 artk.

² DE JORGE MESAS, Luis Francisco. "La cooperación judicial penal en la unión europea. Las claves del sistema del reconocimiento mutuo: soberanía compartida, interoperabilidad de los sistemas jurídicos y garantía procesal del reconocimiento". Zuzendaria: Juan Antonio Robles Garzón. Doktorego Tesia. Malagako Unibertsitatea, Zuzenbide Fakultatea, Málaga, 2014. 21. or; BACHMAIER WINTER, Lorena. "La Orden Europea de Investigación y el principio de proporcionalidad". *Revista General de Derecho Europeo*. 2011, 25. zk. ISSN-e: 1696-9634. 75. or.

Mugaz gaindiko delinkuentziari aurre egiteko beharrezkoa den harmonizazio europar horren barruan, elementu garrantzitsuenetako bat froga lortzea da, horrela, estatu kide desberdinek euren lurraldean ez dauden froga diligentziak lortu eta erabili ahal izateko³.

Hala ere, mugaz gaindiko esparruan froga penalak lortze horretan, nazio mailan topa daitezkeen baino zailtasun gehiago agertzen dira⁴. Izan ere, azaldutako askatasun, segurtasun eta justizia eremuaren ezarpenaren ondoren mugak ezabatzeak ez dakartza abantailak soilik, delitugileei egindako delituak zigortzea ekiditeko aukera gehiago ematen baitizkie⁵.

Horrela, arlo penalean, frogen eskuraketari buruzko bi arau mota daude Europar Batasunean. Nahiz eta nazioz gaindiko jatorria duten biek, oinarri eta aplikazio eremu desberdina dute. Alde batetik, elkarrekiko laguntza printzipioan eta lankidetzaren malgutan oinarritzen diren instrumentu konbentzionalak daude, beti ere, estatu bakoitzeko subiranotasun nazionala errespetatuz; eta, bestetik, elkarrekiko aitortza printzipioan oinarritzen diren instrumentu normatiboak, printzipioz, eskatutako lankidetzaren beharrezkoa denean derrigorrezkotzat inposatzen dutenak⁶.

2. ELKARREKIKO LAGUNTZA JUDIZIALEKO INSTRUMENTUAK

Orain arte, europar esparruan frogak lortzeko laguntza judiziala, batez ere, 1959ko apirilaren 20ko Akordioan oinarritzen da, Europako Kontseiluan egindakoa, zigor-gaietan elkarrenganako laguntza jasotzeko⁷. Hitzarmena, 1990eko ekainak 19ko

³ DOMÍNGUEZ RUIZ, Lidia. “La orden europea de investigación: el camino hacia un régimen europeo uniforme en materia de prueba penal”. FUENTES SORIANO, Olga; GONZÁLEZ CANO, María Isabel, & JIMÉNEZ CONDE, Fernando (Koordk.). *Adaptación del Derecho Procesal Español a la Normativa Europea y su interpretación por los tribunales*. Valencia: Tirant lo Blanch, 2018. 337.-344. orr. ISBN: 978-84-9190-949-1. 337. eta 338. orr

⁴ BACHMAIER WINTER, Lorena. “La Orden Europea de Investigación y el principio de proporcionalidad”, op.cit., 2. or

⁵ DOMÍNGUEZ RUIZ, Lidia, op.cit., 337. eta 338. orr; DELGADO MARTÍN, Joaquín. “La orden de detención europea y los procedimientos de entrega entre los estados miembros de la Unión Europea”. *Cuadernos de Derecho Judicial*. 2003, 13. zk, 281.-380. orr. ISSN: 1134-9670. 288. or

⁶ BACHMAIER WINTER, Lorena. “La Orden Europea de Investigación: la propuesta de Directiva europea para la obtención de pruebas en el proceso penal”. *Revista española de derecho europeo*. 2011, 37. zk, 71.-93. orr. ISSN: 1579-6302. 75. or

⁷ Europako Kontseilua, hitzarmenak, 30. zk.

Schengen Akordioaren Aplikaziorako Hitzarmeneko⁸ aurreikuspenekin osatzen da, baita 1978⁹ eta 2001eko¹⁰ Protokoloekin ere.

1959ko Hitzarmenean ezarritako arau orokorra egindako eskariak errekeritutako Estatuko arau prozesalen arabera exekutatu behar direla da (3.1 art.). Hitzarmen horren arabera, alderdi kontratatzaileak zigor arloan elkarri laguntza ematera behartuta daude; hala ere, elkarrekiko laguntza hori ukatzeko kausak aurreikusten dira, besteak beste, ordena publikoa edo eskatutako estatuaren interes nazionala (2. art.). Kausa hauek diskrezionaltasun margen handia uzten dute zabalik, edukia zabala delako eta gutxi definitua dagoelako¹¹.

Bestalde, sarrera eta erregistro edo konfiskazio neurria bada eskatutakoa, honen betetzea kriminalitate bikoitzaren eta dilijentzia hori exekuzio estatuaren legeriarekin bateragarria izatearen baldintzapean egon daiteke (4. art.). Probak lortzea exekuzio estatuaren lankidetzarako eskaeren exekuzio eta transmisio arauen arabera egingo da, premiazko kasuetan izan ezik, dagokien justiziako ministroen bidez egingo delarik (15. art.).

Orain arte azaldutako araudi hau, gainera, laguntza judizialaren ukapen arrazoiak nabarmen murrizten dituen laguntza judizialeko xedapenekin osatzen da. Kriminalitate bikoitzaren eskakizuna leundu egiten da Schengen Hitzarmenaren aplikazioaren bitartez (51. art.). Aipatu bezala, Hitzarmen honek ukapen arrazoiak nabarmenki gutxiagotzen ditu¹² eta, arau gisa, Estatu errekeritzailearen eta errekerituaren autoritate judizialen arteko kontaktu zuzena baimentzen du (53. art.).

⁸ 1990eko ekainak 19ko Aplikazio Hitzarmena, 1985eko ekainak 14ko Schengen Akordioaren inplementazioari buruzkoa, zeinak gradualki muga komunetako kontrolak ezabatzen dituen.

⁹ Europako Kontseilua, hitzarmenak, 99. zk.

¹⁰ Europako Kontseilua, hitzarmenak, 182. zk.

¹¹ ROMERO PRADAS, María Isabel. “La prueba penal en Europa, una cuestión compleja. La orden europea de investigación como nuevo instrumento de obtención de pruebas en procesos penales transnacionales y su próxima incorporación al Derecho español”. GONZÁLEZ CANO, María Isabel (Zuz). *Integración Europea y Justicia Penal*. Valencia: Tirant lo Blanch, 2018. 343.-402. orr. ISBN: 978-84-9190-178-5. 349. or

¹² Ibidem

Hauek ziren mugaz haraindiko prozeduren eremuan zigor frogak lortzeko tresna nagusiak 2000ko maiatzaren 29ko Zigor arloko Laguntza Judizialari buruzko Europar Hitzarmena¹³ indarrean sartu arte. Bost urte baino gehiagoko itxaronaldiaren ostean, 2005eko abuztuaren 23an, Hitzarmen hau indarrean sartu zen. 1959ko Hitzarmena oinarritzen den elkarrekiko laguntza printzipioak alde batera utzi gabe, Hitzarmen honek aurrerapen garrantzitsua dakar lankidetzaren judizialaren garapenean¹⁴. Honi, 2001eko urriak 16ko Protokolo Osagarria ere batu behar zaio.

Hitzarmenaren helburua aurreko araudia osatzea eta Europar Batasuneko estatu kideen arteko kooperazio judiziala hobetzea, erraztea da (1. art.). Honen arabera, 2000. urteko Hitzarmenean araututa ez dauden gai edo materiei 1959. urteko Hitzarmena eta Schengen Hitzarmeneko xedapenak aplikatuko zaizkie¹⁵.

2000ko Hitzarmen honek zigor-gaietako lankidetzaren judizialean eraginkortasun handiagoa eskaintzea bilatzen du, besteak beste: komisioen transmisio arinagoa; bideokonferentzia edo telefonoa bezalako mekanismo teknologikoak erabiltzea lekukoaren deklarazioen komunikazio eta transmisioetan; informazioa espontaneoki trukatzeko aukera; edo ikerketa-talde bateratuak erregulatzea.

4.1 artikulua arabera, laguntza judiziala ematen den kasuetan, errekeritutako estatu kideak behatuko ditu estatu kide errekeritzaileak espresuki agindutako tramite eta prozedurak, aipatutako Hitzarmenak aurkakoa xedatzen badu salbu eta, beti ere, tramite eta prozedura hauek errekeritutako estatu kidearen zuzenbidearen oinarritzko printzipioen aurkakoak ez badira. *Forum regit actum* printzipio honek, errekeritutako estatu kidearen oinarritzko printzipioek baldintzatuta bada ere, errekeritutako estatuan exekututako neurriak estatu eskatzailean onargarriak izatea errazten du¹⁶.

¹³ 2000.07.12ko DO C 197/1, 2001eko urriak 16ko Kontseiluaren Egintzak osatua, aipatutako Hitzarmenaren Protokoloa ospatzen delarik (C 326, 2001.11.21ekoa).

¹⁴ BACHMAIER WINTER, Lorena. "El exhorto europeo de obtención de pruebas en el proceso penal. Estudio y perspectivas de la propuesta de Decisión Marco". ARMENTA DEU, Teresa & GASCÓN INCHAUSTI, Fernando (Zuzk). *El Derecho Procesal Penal en la Unión Europea. Tendencias actuales y perspectivas de futuro*. Madril: Colex, 2006. 131.-178. orr. ISBN: 84-8342-007-4. 135. or

¹⁵ Ibidem

¹⁶ ROMERO PRADAS, María Isabel, op.cit., 349. eta 350. orr

Aurrerapen horiek emanda ere, Batzordearen iritziz, laguntza judizialeko sistemak arintasun eta eraginkortasun handiagoa behar zuen. Estatu guztietan berdin aplika daitekeen erregimen juridikorik ere ez zegoen, batez ere, estatu kide guztiek egindako akordioak berretsi ez zituztelako, edo 1959ko Akordioaren kasuan bezala, estatu askok erreserbak formulatu zituztelako¹⁷.

Bestalde, kriminalitate bikoitzaren baldintzak lankidetzaren arinak eragozten zituen hesirik garrantzitsuena izaten jarraitzen zuen. Horregatik, elkarrekiko lankidetzaren tresnak hobetzeko eta 2000ko Hitzarmena indarrean sartzera itxaron gabe, Europako Batzordeak lanean jarraitu zuen ebazpen judizialen elkarrekiko aitortza printzipioan oinarritutako lankidetzaren penalaren garapenean¹⁸.

3. ELKARREKIKO AITORTZA PRINTZIBIOAN OINARRITUTAKO TRESNAK

Denborak aurrera egin ahala, elkarrekiko laguntza juridikoari buruzko eskakizunen tramitazio eta betetzei arintasun gehiago emateko, 1999. urteko Tampereko Europar Kontseiluan lankidetzaren judizialean aurrera egitea adosten da, pixkanaka, elkarrekiko laguntza juridikoaren sistema elkarrekiko aitortza printzipioarekin ordezkatzeko, baita zigor frogaren arloan ere¹⁹.

Zigor justiziaren arloan elkarrekiko aitortza printzipioaren alderdi garrantzitsuenetako bat frogaren arloan duen proiektzioa da²⁰. Printzipio horren ezarpena onartzen eta

¹⁷ BACHMAIER WINTER, Lorena. "El exhorto europeo de obtención de pruebas en el proceso penal...", op.cit., 135. or

¹⁸ BACHMAIER WINTER, Lorena. "El exhorto europeo de obtención de pruebas en el proceso penal...", op.cit., 136. or

¹⁹ ROMERO PRADAS, María Isabel, op.cit., 350. or

²⁰ ORMAZÁBAL SÁNCHEZ, Guillermo. "La formación del Espacio Judicial Europeo en materia penal y el principio de mutuo reconocimiento. Especial referencia a la extradición y al mutuo reconocimiento de pruebas". ARMENTA DEU, Teresa & GASCÓN INCHAUSTI, Fernando (Zuzk). *El Derecho Procesal Penal en la Unión Europea. Tendencias actuales y perspectivas de futuro*. Madrid: Colex, 2006. 37.-73. orr. ISBN: 84-8342-007-4. 44. or; "La prueba penal en el Espacio judicial europeo. Asistencia judicial y mutuo reconocimiento". *La Ley Penal*. 2010, 74. zk. ISSN: 1697-5758. 15. or. Baita, JIMÉNEZ-VILLAREJO FERNÁNDEZ, Francisco. "Orden europea de investigación". JUANES PECES, Ángel (Zuz). *Cooperación jurídica penal internacional*. Madrid: Memento experto Francis Lefebvre, 2016. 387. or

defendatzen duten Europako erakundeek adierazpen, dokumentu, proposamen eta araudi ugari daude, beraz.

Printzipio hau, Europar Batasuneko lankidetzaren judizial zibil eta penalaren "ardatz" gisa jaso zen²¹. Elkarrekiko konfiantzan oinarritzen da eta estatu kideen arteko lankidetzaren harremanetan benetako iraultza ekarri du²², estatu kide bateko autoritate judizial bateko emandako ebazpenak beste estatu kide batean aitortzea eta exekutatzeko ahalbidetuz, aitortza ukatzeko arrazoiren bat ematen bada salbu²³.

Europar erakundeek egindako ebaluazioaren arabera, elkarrekiko laguntza juridikoko mekanismo konbentzionalek arintasun eta eraginkortasun falta zuten eta, horregatik, elkarrekiko laguntzaren bidea, europar lankidetzaren judizialaren tresnengatik ordezkatu nahi izan da, eskaeren transmisioa arintzeaz eta oztopo linguistiko eta formalak saihesteaz gain, laguntza ukatzeko arrazoiak mugatuko zituelako²⁴.

Elkarrekiko aitortzak, zentzu zabalenean, hau da, aurretiazko baldintzarik gabe, eskatutako estatuan efektu automatikoak dituzten atzerriko ebazpenen onarpenak, agintari judizialen zuzeneko lankidetzaren judizial eta administratiboari laguntzen dio, tartean ministerioen esku-hartzerik gabe. Bestalde, estatu kideak "atzeko atearen bitartez"- beren lege materialen arauak harmonizatzerako ere behartzen ditu nolabait, bigarrena ematen delarik (prozeduren arteko lankidetzaren sendotzea elkarrekiko aitortzenaren bidez) lehenengoaren aurretik (zuzenbide materialaren harmonizazioa)²⁵.

²¹ 33. Ondorioa: "Un mejor reconocimiento mutuo de las resoluciones y sentencias judiciales y la necesaria aproximación de las legislaciones facilitaría la cooperación entre autoridades y la protección judicial de los derechos individuales. Por consiguiente, el Consejo Europeo hace suyo el principio del reconocimiento mutuo, que, a su juicio, debe ser la piedra angular de la cooperación judicial en materia civil y penal en la Unión. El principio debe aplicarse tanto a las sentencias como a otras resoluciones de las autoridades judiciales".

²² GÓMEZ-JARA DÍEZ, Carlos. "Orden de detención europea y Constitución Europea: reflexiones sobre su fundamento en el principio de reconocimiento mutuo". *Diario La Ley*. 2004, 4. zk, 1606.-1615. orr. ISSN: 0211-2744.

²³ Horrela adierazten da LRMren Aitzinsolasean, modu argian eta antolatuan laburbiltzen delarik EBeko lankidetzaren judizialean elkarrekiko aitortzaren eboluzioa eta helmena.

²⁴ BACHMAIER WINTER, Lorena. "La Orden Europea de Investigación: la propuesta de Directiva...", op.cit., 78. or

²⁵ AMBOS, Kai. "¿Reconocimiento mutuo versus garantías procesales?". DE HOYOS SANCHO, Montserrat (Zuz), *El proceso penal en la Unión Europea: garantías esenciales*. Valladolid: Editorial Lex Nova, 2008. 25.-39. orr. ISBN 978-84-8406-881-5. 30. or

Europako erakundeek bultzatutako helburua EBean merkantzien zirkulazio askearen bertsio baliokidea edo froga arlokoa sortzea da²⁶. Grafikoki, Alemaniako doktrinak, zentzu honetan, *Verkehrsfähigkeit von Beweisen* edo *freizügiger Beweis* hitz egiten du (euskaraz, frogen zirkulazioa), ideia hori iradokitzen dutelarik adierazpen hauek²⁷.

Horrela, froga baliabide bat edo datu bat zirkulazio askeko produktu bihurtu "beharko" litzateke Batasunean, hain zuzen ere, merkantziei aplikatzen zaien zirkulazio askearen printzipioaren zentzu berean²⁸. Frogen zirkulazio askeak elkarrekiko aitortza mota bat deskribatzen du; horretan, estatu kide bateko agintari eskudunek froga batzuk ematen dituzte zirkulazio askeko sisteman, eta beste estatu kide bateko agintari eskudunek prozedura penalerako erabili ditzakete²⁹.

Elkarrekiko aitortza printzipioa prozedura penal osoan aplikatzen den arren, EBren azken urteetako helburu nagusietako bat frogak lortzearen eremuraino zabaltzea izan da, esan bezala, orain arte estatu desberdinetako agintaritza judizialen arteko elkarrekiko laguntza izan delarik froga elementuen komunikazio eta lorpen modua³⁰.

3.1. Ondasunen prebentziozko enbargoa edo frogak segurtatzeko ebazpenak

2001. urtean, zigor arloko erabakietan elkarrekiko aitortza printzipioa ezartzeko Neurrien Programan ezarritakoaren arabera, aipatutako printzipio hau prozesu penalaren fase guztietan "bilatu behar da", kondenazko epaia eman aurretik, bitartean edota baita gero ere. Horrela, Programak³¹, lehentasun gisa ezarri zituen ondasunen prebentziozko

²⁶ ORMAZÁBAL SÁNCHEZ, Guillermo. "La prueba penal en el Espacio judicial europeo...", op.cit., 15. or

²⁷ ORMAZÁBAL SÁNCHEZ, Guillermo. "La formación del Espacio Judicial Europeo...", op.cit., 44. or

²⁸ AMBOS, Kai. "¿Reconocimiento mutuo versus garantías procesales?", op.cit., 31. or

²⁹ GLESS, Sabine. "Free movement of evidence in Europe". ARMENTA DEU, Teresa & GASCÓN INCHAUSTI, Fernando (Zuzk). *El Derecho Procesal Penal en la Unión Europea. Tendencias actuales y perspectivas de futuro*. Madril: Colex, 2006. 121.-130. orr. ISBN: 84-8342-007-4. 123. or

³⁰ DE LUCAS MARTÍN, Ignacio. "La prueba en el proceso penal en el contexto de la Unión Europea". DE HOYOS SANCHO, Montserrat (Zuz). *El proceso penal en la Unión Europea: garantías esenciales*. Valladolid: Editorial Lex Nova, 2008. 424.-431. orr. ISBN: 978-84-8406-881-5. 425. or

³¹ 2000ko azaroak 29an hartua, Tampereko Europar Kontseiluko ondorioekin bat (36): "debe aplicarse también a los autos anteriores al juicio, en particular a los que permiten a las autoridades competentes actuar con rapidez para obtener pruebas y embargar bienes que puedan ser trasladados con facilidad; las pruebas obtenidas legalmente por las autoridades de un Estado miembro deberán ser admisibles ante los tribunales de otros Estados miembros, teniendo en cuenta la normativa que se aplique en ellos".

enbargoa edo frogak segurtatzeko elkarrekiko aitortza printzipioa aplikatzeko tresnak³² hartzea.

Hori dela eta, gai honi buruzko lanak hasi ziren, 2003ko uztailaren 22ko Kontseiluaren 2003/577/JAI EErekin amaitu zutenak, EBeko ondasunen prebentziozko enbargoa edo frogren segurtatzea eskatzen duten ebazpenei buruzkoarekin³³. Lehenengoa izan zen frogren suntsipena, eraldaketa, desplazamendua, transferentzia edo lekualdatzeak saihesteko berehalako elkarrekiko aitortenaren beharrari aurre egiteko³⁴.

Hala ere, tresna hau enbargo fasera bakarrik mugatzen zela kontuan hartuta, enbargo ebazpenak eskari berezi batekin batera aurkeztu behar ziren, frogaren transferentziatik banatuta, arlo penaleko elkarrekiko laguntzaren arauekin bat etorriz. Horrela, bi etapako prozesu baten aurrean geunden eta honek bere eraginkortasunean eragiten zuen. Horrez gain, erregimen hau lankidetzaren tresna tradizionalekin batera existitzen zen, horrela, praktikan, agintari eskudunek oso gutxitan erabiltzen zutelarik³⁵.

2003/577/JAI EE ekainaren 5eko 15/2006 Legearen bitartez barneratu zen espainiar zuzenbidean, prozesu penaletan enbargo eta frogak ziurtatzeko ebazpenek Europar Batasunean eraginkortasuna lortzeko eta, ondoren, bere erregulazioa LRMn integratu zen (VII. Titulua, 143. eta 156. artk).

3.2. Frogak lortzeko europar exhortoa

³² 6. Neurria: “Elaboración de un instrumento sobre reconocimiento de las resoluciones de embargo de pruebas, a fin de impedir la pérdida de pruebas que se encuentren en el territorio de otro Estado miembro”. 7. Neurria: “Elaboración de un instrumento sobre el reconocimiento mutuo de las resoluciones de embargo preventivo de bienes. Este instrumento debería permitir embargar provisionalmente bienes en caso de urgencia, sin recurrir a los procedimientos de asistencia judicial, mediante la ejecución de los autos pronunciados por un órgano jurisdiccional de otro Estado miembro”.

³³ EBren bigarren pausoa izan zen elkarrekiko aitortza printzipioaren garapen gisa, 2002ko ekainaren 13ko Kontseiluaren 2002/584/JAI EEren, europar atxiloketa aginduaren eta estatu kideen arteko entrega prozesuei buruzkoaren ondoren.

³⁴ ROMERO PRADAS, María Isabel, op.cit., 352. or

³⁵ EIAZ 3. Cdo. Ikus, ALIAGA CASANOVA, Alfonso Carlos. “La Ejecución en la Unión Europea de las resoluciones de embargo preventivo de bienes y aseguramiento de pruebas. La víctima y su derecho al cobro de la indemnización”. *Estudios jurídicos*. 2008, 2008. zk, 1.-49. orr. ISSN-e: 1888-7740. 20. or; RODRÍGUEZ-MEDEL NIETO, Carmen. *Obtención y admisibilidad en España de la prueba penal transfronteriza: de las comisiones rogatorias a la orden europea de investigación*. Cizur Menor: Aranzadi, 2016. ISBN: 978-84-9135-211-2. 502. or

Hagako Programa³⁶ deiturikoak (Tampere II gisa ere ezaguna), Europar Batasunean askatasun, segurtasun eta justizia sendotzeko, elkarri aitortzeko printzipioaren inplementazio planaren barruan, frogak lortzea eta onartzea objektu edo xede zuten ebazpenak heldu zituen bereziki. 2005. urtearen amaierarako aurreikusi zen Kontseiluak frogak lortzeko europar exhortoari buruzko Esparru Erabakia onartzea.

2003ko azaroaren 14an, Batzordeak EEren proposamena³⁷ aurkeztu zuen, frogak lortzeko Europar exhortoari buruzkoa, prozedura penaletarako objektuak, dokumentuak eta datuen frogak lortzeko, bere inplementaziorako data 2005eko urtarrilak 1ean finkatzen zelarik (Proposamenaren 25. art.).

Hala ere, EEk ez zuen argia ikusi 2008. urtearen amaierara arte: Kontseiluaren 2008/978/JAI EE, abenduak 18koa, zigor arloko prozeduretara bideratutako objektuak, dokumentuak eta datuak biltzeko frogak lortzeko europar exhortoari buruzkoa³⁸. Negoziaketa luzeen ondoren³⁹, Batzordearen proposamena nabarmenki murriztuz joan zen⁴⁰, elkarri aitortzeko printzipioa inplementatzean zegoen mesfidantza zela eta, baita beste Estatu batean frogak lortzeko material sortzen ziren arazoak zirela eta ere⁴¹.

Ukaezina da aurreko 2003/577/JAI EE baino haratago joan nahi izan zela, hobetu egin nahi izan zela eta frogen suntsipena, eraldaketa, desplazamendua, transferentzia edo lekualdatzeak saihesteko berehalako elkarrekiko aitortenaren beharra planteatu zuela⁴². Exhortoa, zigor arloko edozein objektu, dokumentu edo datu lortzeko erabili daiteke

³⁶ 2004ko abenduak 4ko Europar Kontseiluan onartua (DOUE C 53/1). 3.3.1 puntua: "Deberá completarse el amplio programa de medidas destinadas a poner en práctica el principio de reconocimiento mutuo de las resoluciones judiciales en materia penal, que abarca las resoluciones judiciales en todas las etapas del procedimiento penal o relativas por otros conceptos a dicho procedimiento, como la obtención y admisibilidad de las pruebas".

³⁷ 3.3.1 puntua, III; COM (2003) 688 bukaera, Batzordeak 2003.11.14an aurkeztutako Proposamena.

³⁸ DOUE L 350, 2008.12.30ekoa

³⁹ 2005ean aurkeztutako Hagako programan ezarritako helburuak betetzeko Akzio Planeko 4.1 puntuan, 2007. urterako Europar exhortoa osatzeko helburua aipatzen da.

⁴⁰ Tresna honi buruzko doktrinaren azterketa ugari daude, adibidez, BACHMAIER WINTER, Lorena. "El exhorto europeo de obtención de pruebas en el proceso penal...", op.cit., 132. or eta hurrengoak.

⁴¹ BACHMAIER WINTER, Lorena. "La propuesta de Directiva europea sobre la orden de investigación penal: valoración crítica de los motivos de denegación". *Diario La Ley*. 2012, 7992. zk. ISSN: 1989-6913. 76. or

⁴² ROMERO PRADAS, María Isabel, op.cit., 353. or

(2008/978/JAI EE 5. eta 6. Cdo)⁴³.

Azpmarratzekoa da EE honek, europar atxiloketa eta entregaren EEk bezala, europar titulu bakar bat sortzen duela, zeinaren bitartez, eredu bakarrarekin, eskudunak diren autoritate judizial guztiek, froga dagoen Estatuko autoritate eskudunei honen lekualdatzea eskatzen dieten⁴⁴.

Exhortoarekin pauso garrantzitsu bat ematen da beste estatu batean dauden frogak lortzeko, elkarrekiko aitortza printzipioaren menpe. Estatu kide bateko autoritate eskudunak emandako ebazpen judizial bat da, beste estatu kide bateko objektuak, dokumentuak eta datuak eskatzeko eta autoritate judizial batek hasitako zigor prozesu batera batzeko edo Estatu igortzailearen legedi nazionalaren arabera delitua izan daitekeen egitateak eman badira hasteko dagoen zigor prozesura batzeko.

Esandakoaren arabera, beraz, exhortoaren printzipio inspiratzaileen ondorioz, kriminaltasun bikoitzaren printzipioa ezabatu egiten da, exhortoaren exekuzioaren ukapen arrazoiak murrizten dira, eskusiboki judiziala den prozedura bat sortzen da eta ebazpen judizialaren eredu bateratu bat erabiltzen da Batasun osoan. Eskatu nahi den horren nondik norakoa ezagutzen bada, modu zuzenean igorriko dio epaile batek beste epaile bati, Europar Sare Judiziala edo Eurojusten laguntzaren aukera ere aurreikusiz⁴⁵.

Igortzailea den autoritateak bildutako objektuak, dokumentuak edo datuak eskatzen den prozeduraren objekturako beharrezkoak eta proportziozkoak direla kontsideratzen duenean bakarrik emango da exhortoa; baita igortzailea den estatuko legeari jarraiki, konparagarria den barne kasu batean lortuko balu ere, nahiz eta neurri prozesal desberdinak erabili behar horretarako (2003/577/JAI EE 7. art.).

⁴³ Hauek izan daitezke, adibidez: hirugarren baten objektuak, dokumentuak edo datuak; susmagariaren lokalen erregistroak, hauen egoitza barne; edozein zerbitzuren erabilpenari buruzko datu historikoak, finantza-eragiketak barne; adierazpen, elkarriketa eta galdeketen dokumentu historikoak; eta beste dokumentu batzuk, ikerketa-teknika berezien emaitzak barne (2008/978/JAI EE 7. Cdo).

⁴⁴ ROMERO PRADAS, María Isabel, op.cit., 354. or

⁴⁵ GRANDE MARLASKA-GÓMEZ, Fernando, & DEL POZO PÉREZ, Marta. "La obtención de fuentes de prueba en la Unión europea y su validez en el proceso penal español". *Revista General de Derecho Europeo*. 2011, 24. zk. ISSN-e: 1696-9634. 32. or; eta MARTÍN GARCÍA, Antonio Luis, & BUJOSA VADELL, Lorenzo. *La obtención de prueba en materia penal en la Unión Europea*. Bartzelona: Atelier, 2016. ISBN: 9788416652099. 60. eta 61. orr

Hala eta guztiz ere, exhortoa, jada aurretik exekuzio autoritatearen esku dauden objektu, dokumentu eta datuak eskuratzeko bakarrik igorri zitekeen (4. art.), bere erabilera mugatua iragarrita zegoelarik, beraz, sortu zenerako⁴⁶. Exhortoak eratu edo sortu zuen lehen fase honetan, esan bezala, elkarrekiko aitortza printzipioak aurretik existitzen ziren frogei bakarrik egiten zien erreferentzia, 4. artikuluan eta honen atal desberdinetan argi ikus daitekeen bezala. Tresna honen mugapen nagusia baieztatzen du honek, ez baitu, inolaz ere, exekuzio agintaritzak froga berriak egiteko aukera onartzen, aurrez existitzen ziren frogen transferentzia bakarrik⁴⁷.

Tresna hau, beraz, behin-behinekotasun bokazioarekin jaio zen, bere aplikazio eremuaren gehiegizko gutxitzea kontuan hartuta, prozesu penaletan erabili nahi diren objektu, dokumentu edo datu horiek biltzeko (eta, hala badagokio, bidaltzeko) emandako ebazpen judizialak bakarrik aurreikusiz⁴⁸.

2008/978/JAI EE transposizioa LRMren promulgazioa medio egin zen espainiar zuzenbidean (X. Titulua, 186.-200. artk), elkarrekiko aitortzako tresna guztien lege integratzailean.

3.3. Ikerketa eta frogak lortzeko tresna bakar baterantza

Esan bezala, europar exhortoaren erabilera eskasak eta, batez ere, bere aplikazio mugatuak, berehala ordezkaturiko zuen tresna osoago batez hitz egitea ekarri zuen⁴⁹

⁴⁶ ROMERO PRADAS, María Isabel, op.cit., 355. or. Esandakoaren erakusgarri da EEren Proposamenarekin batera zihuan Zioen Azalpena, horrela kontsideratzen baitzuen exhorto europarra: “un primer paso hacia un único instrumento de reconocimiento mutuo que en su momento sustituirá al actual régimen de asistencia judicial”.

⁴⁷ MARTÍN GARCÍA, Antonio Luis, & BUJOSA VADELL, Lorenzo, op.cit., 61. or

⁴⁸ ROMERO PRADAS, María Isabel, op.cit., 355. eta 356. orr; JIMENO BULNES, Mar. “Orden europea de investigación en materia penal”. JIMENO BULNES, Mar (Zuz). *Aproximación legislativa versus reconocimiento mutuo en el desarrollo del espacio judicial europeo: una perspectiva multidisciplinar*. Bartzelona: Bosch, 2016. 151.-208. orr. ISBN: 978-84-945803-5-2. 153. or; GRANDE MARLASKA-GÓMEZ, Fernando, & DEL POZO PÉREZ, Marta, op.cit., 33. or; BACHMAIER WINTER, Lorena. “La Orden Europea de Investigación: la propuesta de Directiva...”, op.cit., 79.-81. orr; MORÁN MARTÍNEZ, Rosa Ana. “Obtención y utilización de la prueba transnacional”. *Revista de Derecho Penal*. 2010, 30. zk, 79.-102. orr. ISSN: 1576-9763. 102. or; eta RODRÍGUEZ-MEDEL NIETO, Carmen, op.cit., 502. eta 503. orr.

⁴⁹ Horrela mantendu zuen urteak lehenago Europar Parlamentuak ere. 2004ko martxoak 22ko txostenean “goiztiar” gisa kalifikatu zuen Exhortoaren EEren Proposamena eta bertan ondorengoa baieztatzen da: “sólo podrá aprobarse un exhorto europeo de obtención de pruebas una vez que entre en vigor un Tratado

Lisboako Tratatuak ezarritako esparru berria aprobetxatuz⁵⁰. Zentzu horretan, EBean nazioz gaindiko prozesu penaletan frogen lorpenerako zegoen erregulazio eskasa argitzera eta konpontzera bideratuta zeuden pauso desberdinak eman ziren.

Lehenik eta behin, Stockholmeko Programak⁵¹ berretsi egiten du zigor arloko nazioz gaindiko prozesuetan edozein motatako frogak lortzeko elkarrekiko aitortza printzipioa ezartzeko helburua. Europako Kontseiluaren ustetan, mugaz gaindiko dimentsioa duten kasuetan, frogak lortzeko sistema orokor bat sortu behar da, elkarrekiko aitortza printzipioan oinarrituz, eremu honetan existitzen diren tresnek zatikatutako sistema bat osatzen dutelako.

Beharrezkoa da planteamendu berri bat, elkarrekiko aitortza printzipioan oinarritua dagoena, baina laguntza judizialeko sistema tradizionalaren malgutasuna ere kontuan hartzen duena. Eredu berri honek helmen zabalagoa eduki dezake eta ahalik eta froga mota gehien barneratu beharko lituzke. Horrela, 2003. urteko EE eta europar exhortoa ordezkaturako zituen osoko sistema bat onartzearen beharrarekin amaitzen da. Esan bezala, ahal den neurrian, froga mota guztiak, aurrez existitzen direnak edota ez direnak, barneratzen dituen, exekuzio epeak dituen eta ukapenerako argudioak mugatzen dituen tresna bat bilatzen da (3.1.1. puntua).

Bestalde, 2009ko azaroak 11n, Batzordeak "beste estatu kideetan zigor arloko frogak lortzearen eta honen onargarritasunaren bermearen inguruko Liburu Berdea" deiturikoa onartu zuen estatu kideei kontsulta egiteko asmoz, baita alderdi interesdun guztiei ere, zigor prozesu batean frogak lortzeko eta onartzeko europar tresna berri baten konfigurazioaren inguruan⁵². Honen helburua iritziak eta esperientziak biltzea zen

constitucional europeo que prevea la protección efectiva de los derechos fundamentales y el papel legislativo del Parlamento Europeo".

⁵⁰ DE JORGE MESAS, Luis Francisco, op.cit., 20. or. Lisboako Itunarekin, hiru zutabeen arteko bereizketan oinarritutako egitura juridiko eta politikoa desagertzen da. EBren erreformak hiru zutabe deiturikoak eta integrazio maila desberdinak ezabatzen ditu. Horren ordez, erregimen politiko eta juridiko bateratuko erakunde bat ezartzen da, estatuen eskumen eskusiboak, Batasunaren eta Batasunaren eta Estatuen arteko eskumen konpartituak bereizten dituen. EBeko egitura juridiko eta politiko berri honen ondorioz, araudi berri bat sortzen da lankidetzat judizial penalaren erregulazioan. Honen ezaugarri nagusia elkarrekiko aitortza printzipioaren agerpena da.

⁵¹ "Una Europa abierta y segura que sirva y proteja al ciudadano", 2009ko abenduak 11 eta 12an onartutakoa (DO C 115, 2010.05.04koa).

⁵² COM (2009) 624 bukaera.

erregulazio proposamen bat aurkezteko.

Azkenean, 2010eko apirilean, Liburu Berdeari gainjarriz, eta frogak lortzeko exhorto europarra aplikatu aurretik, hainbat estatu kideren ekimenez, Batzordeak EIAZren Proposamena aurkeztu zuen⁵³, exhortoak baino aplikazio eremu zabalagoa izango zuena.

4. HASIERAN IKERKETARAKO EXHORTO EUROPARRA DEITUA IZAN ZEN ZUZENTARAUAREN PROPOSAMENA: ELKARREKIKO AITORTZA PRINTZIPIOAREN MALGUTZEA

2010eko apirilean, zazpi estatu kidek (tartean, Espainiak)⁵⁴ Europar Parlamentuan eta Kontseiluan zigor arloko ikerketarako europar exhortoaren inguruko zuzentarauaren onarpenerako ekimena aurkeztu zuten. Testu honek zigor arloko frogabideen lorpenerako lankidetzaren eraginkorragoa lortzeko xedea zuen, aurrez egindako kontsultarekin bat, nahiz eta ez zitzaion aurre egin frogen onargarritasunari buruzko erregulazio bateratu bat ezartzeko nahiari, estatu kideen ordezkarien aldetik ez baitzegoen adostasunik puntu horretan, horrela, aurrez aipatutako Liburu Berdeko bigarren helburua alde batera utziz⁵⁵.

Stockholmeko Programarekin hasitako ibilbidearekin jarraitu zen, transzendentzia penala zuen edozein frogaren lortzeko sistema bati estaldura normatiboa emango zion tresna bakar bat sortzearen alde eginez, horretarako, erreferentziatzat elkarrekiko laguntzaren sistema tradizionalen propioa den malgutasuna hartuz eta oinarritzat Lisboako Itunean kontsakratu zen elkarrekiko aitortza printzipioa izanez (EBFH 82.1 a art.)⁵⁶.

Frogen zirkulazio aske eta eraginkorra erraztuko zuen proposamen honen abiapuntua, doktrinak kalifikatu duen eta Proposamenaren Zioen azalpenean ageri den bezala,

⁵³ DOUE C 165, 2010.05.24koa.

⁵⁴ Belgika, Bulgaria, Estonia, Austria, Eslovenia eta Sueziaz gain. DOC 165, 2010.06.24koa.

⁵⁵ JIMENO BULNES, Mar, op.cit., 158. or

⁵⁶ AGUILERA MORALES, Marien. "El Exhorto Europeo de Investigación: a la búsqueda de la eficacia y la protección de los derechos fundamentales en las investigaciones penales transfronterizas". *Boletín Oficial del Ministerio de Justicia*. 2012, 2145. zk, 2012ko abuztua, 3. or

nazioz gaindiko frogak lortzeko alorrean indarrean zegoen araudi “zatikatu eta konplexua” zen⁵⁷.

Egoera nahasia zen operadore juridiko guztientzat, ez baitzen erraza zein tresna erabili behar zuten jakitea arauketaren zatiketa hori zela eta. Gainera, praktikan ohikoa zen laguntza judizialeko sistemetara elkarrekiko aitortzako sistemetara baino lehenago jotzea, ez bakarrik erabileraren tradizioagatik, baita azken horien aplikazio eremuaren mugapenagatik ere (batzuk implementazioa lortu aurretik). Modu honetara, elkarrekiko laguntzako tresna konbentzionaletara jotzen zen, nahiz eta eraginkortasun eskasa eduki eta motelak izan, frogak lortzeko eskaera guztiak estaltzea onartzen zutelako, baita hauek bermatzea eta Estatu eskatzailera transferitzea ere⁵⁸.

Ukaezina da Proposamenak zigor arloan frogen lorpenerako lankidetzaz eraginkorragoa lortzeko nahia duela, Stockholmeko Programak ezarritako bidea jarraituz. Hala ere, zeregin hori ez da erraza eta intentzio ona izan arren, laster, bereziki bi faktoretan oinarritutako kritikak etorri ziren: batetik, elkarrekiko aitortza printzipioaren oinarria zalantzan jartzen zen frogak lortzearekin harremanetan; eta, bestetik, oinarritzko eskubide eta berme prozesalek, zigor ikerketako diligentzietan lotuta izan beharreko babes estandarraren inguruko parametro komunak gabezia⁵⁹.

5. EUROPAKO IKERKETA AGINDUA

5.1. Aspektu orokorrak

Azaldutako aurrekariekin eta deskribatutako esparru normatiboan, azkenean, 2014ko apirilean EIAZ onartu zen, negoziazio prozesu luze baten ostean⁶⁰. Tresnak "agindu"

⁵⁷ AGUILERA MORALES, Marien, op.cit., 5. or; eta JIMÉNEZ-VILLAREJO FERNÁNDEZ, Francisco. “Orden europea de investigación: ¿adiós a las comisiones rogatorias?”. ARANGÜENA FANEGO, Coral (Koord). *Cooperación judicial civil y penal en el nuevo escenario de Lisboa*. Granada: Comares, 2011. 178. or

⁵⁸ BACHMAIER WINTER, Lorena. “La Orden Europea de Investigación: la propuesta de Directiva...”, op.cit., 79. eta 80. or; eta AGUILERA MORALES, Marien, op.cit., 5. or

⁵⁹ ROMERO PRADAS, María Isabel, op.cit., 360. or; JIMÉNEZ-VILLAREJO FERNÁNDEZ, Francisco. “Orden europea de investigación: ¿adiós a las comisiones rogatorias?”, op.cit., 387. or

⁶⁰ Lisboa ondorengo garaiko lehenengo arauetako bat izanda, europar legegileak zuzentaraua aukeratu du arau gisa. Ikus, AGUILERA MORALES, Marien, op. cit., 3. eta 4. or; RODRÍGUEZ-MEDEL NIETO,

deitura hartu zuen jatorrizko “exhorto” terminoa ordezkatzuz⁶¹. Hitzaurre bat, berrogeitasei “Considerando” eta zazpi kapitulutan⁶² banatutako hogeita hemeretzi artikuluz osatzen da, baita lau eranskinez ere.

Zuzentarau honen eta aurreko exhortoaren arteko aldea argia da⁶³, batez ere, edozein ikerketa neurri barne hartzen duelako, *froga arloko zuzenbide transnazional*⁶⁴ deiturikoa garatzen lagunduz. Baiezta daiteke arau berriarekin *egoera nahasia*⁶⁵ gainditzen dela, ohiko tresna konbentzional desberdinen eta Batasuneko froga arloko elkarrekiko aitortzakoen elkarbizitza eraginez (6. Cdo)⁶⁶, erreguzko mandatuak agintaritza judizialen arteko lankidetzaren horizontalaren eremuan oinarritutako sistema bakarraz ordezkatzuz⁶⁷.

Carmen, op.cit., 502. eta 503. orr; JIMÉNEZ-VILLAREJO FERNÁNDEZ, Francisco. “Orden europea de investigación”, op.cit., 390. or; ARANGÜENA FANEGO, Coral. “Orden europea de investigación: próxima implementación en España del nuevo instrumento de obtención de prueba penal transfronteriza”. *Revista de Derecho Comunitario Europeo*. 2017, 58. zk, 905.-939. orr. ISSN: 1138-4026. 908. or

⁶¹ Doktrinak hasieratik nabarmendu zuen terminologia gai hau. Ikus, GONZÁLEZ CANO, María Isabel. “El Proyecto de Decisión Marco sobre el exhorto europeo de medios de prueba”. MORENO CATENA, Víctor Manuel & ARROYO ZAPATERO, Luis. *La Prueba en el Espacio Europeo de Libertad, Seguridad y Justicia Penal*. Nafarroa: Thomson Reuters Aranzadi, 2006. 95.-116. orr. ISBN 84-8355-083-0. 102. or; AGUILERA MORALES, Marien, op. cit., 3. or; JIMENO BULNES, Mar, op. cit., 160. or; eta GONZÁLEZ MONJE, Alicia. *Cooperación jurídica internacional en materia penal e intervención de comunicaciones como técnica especial de investigación*. Granada: Comares, 2017. ISBN: 9788490455104. 80. or.

⁶² EIA; igorpen Estaturako prozedura eta bermeak; exekuzio Estaturako prozedura eta bermeak; ikerketa-neurri jakinetarako xedapen zehatzak; kautela-neurriak eta azken xedapenak.

⁶³ BACHMAIER WINTER, Lorena. “La Orden Europea de Investigación: la propuesta de Directiva...”, op.cit., 80. or eta hurrengoak

⁶⁴ VOGEL, Joaquim. “La prueba transnacional en el proceso penal: un marco para la teoría y praxis”. MORENO CATENA, Víctor Manuel & ARROYO ZAPATERO, Luis. *La Prueba en el Espacio Europeo de Libertad, Seguridad y Justicia Penal*. Nafarroa: Aranzadi, 2006. 45.-90. orr. ISBN: 84-8355-083-0. 48. or

⁶⁵ JIMÉNEZ-VILLAREJO FERNÁNDEZ, Francisco. “Orden europea de investigación: ¿adiós a las comisiones rogatorias?”, op.cit., 178. or

⁶⁶ DE HOYOS SANCHO, Montserrat. “La orden europea de investigación: reflexiones sobre su potencial efectividad a la vista de los motivos de denegación del reconocimiento y ejecución en España”. *Revista General de Derecho Procesal*. 2019, 47. zk. ISSN-e: 1696-9642. 6. or. Neurri batean atzerapen bat izan daitekeela dio hartutako erabaki hau, ebazpen judizialen mugaz gaindiko elkarrekiko aitortzaren aplikazio eremu espazialean indarrean dauden lankidetzaren zuzeneko beste tresna batzuekin alderatzen badugu. Bestalde, Costa Ramosek ondorioztatzen duenez, onartutako EIAren emaitza “bigarren belaunaldiko” laguntza judizialera gehiago hurbiltzen da. Ikus, COSTA RAMOS, Vania. “Medios procesales de impugnación de la orden europea de investigación: aportaciones a la interpretación del art. 14 de la Directiva”. VIDAL FERNÁNDEZ, Begoña; ARANGÜENA FANEGO, Coral & DE HOYOS SANCHO, Montserrat (Zuzk). *Garantías procesales de investigados y acusados. Situación actual en el ámbito de la Unión Europea*. Valencia: Tirant Lo Blanch, 2018. 337.-380. orr. ISBN: 978-84-9190-320-8. 340. eta 341. orr

⁶⁷ JIMENO BULNES, Mar, op.cit., 159. eta 160. orr

Azaldutakoak izaera konplexua ematen dio Zuzentarauari eta nabarmena da laguntza judizialaren sistemaren alternatiba gisa elkarrekiko aitortzaren eredia erabiltzearen ideia alde batera uzten dela⁶⁸. Dena dela ere, azpimarratzekoa da EBeko mugaz gaindiko frogak lortzeko tresna bakarra EIA dela kontzebituta, gai honi buruzko araudia bateratzea ahalbidetzen duela⁶⁹. Beraz, Europar Batasunean mugaz gaindiko frogak lortzeko tresna bakarra izanik, eskabidea ikerketa-neurri zehatz bat edo batzuk lortzeko igorriko da, dauden exekuzio estatuan burutuko direnak, frogak lortzeko edo exekuzio agintaritzaren jabetzan daudenak eskuratzeko helburuarekin⁷⁰.

EIAZk, oro har, benetako nazioz gaindiko prozedura bat diseinatu du mugaz gaindiko frogen lorpenerako⁷¹, besteak beste, EIA baten igorpen eta transmisioa, aitortza eta exekuzioa erregulatzen baititu, baita aitortza eta exekuziorako epe lotesleak (12. art.), frogen helarazpena (13. art.), errekurtsio bideak (14. art.) eta beste gai garrantzitsu batzuk ere⁷².

Espainiar ordenamenduan ondoko Legearen bitartez transposatu da: 3/2018 Legea, ekainaren 11koa, Europar Batasunean zigor-arloko ebazpenak elkarri aitortzeari buruzko azaroaren 20ko 23/2014 Legea aldatzen duena EIA arautzeko.

⁶⁸ GONZÁLEZ MONJE, Alicia, op.cit., 80. eta 81. orr, eredu berri honek helmen zabalagoa izan dezakeela dio eta ahalik eta frogak mota gehien barneratu beharko dituela. Ikus, baita BACHMAIER WINTER, Lorena. “La Orden Europea de Investigación: la propuesta de Directiva...”, op.cit., 86. or; eta BACHMAIER WINTER, Lorena. “Prueba transnacional penal en Europa: la Directiva 2014/41 relativa a la Orden Europea de Investigación”. *Revista General de derecho europeo*. 2015, 36. zk. ISSN-e: 1696-9634. 29. or eta hurr. De Hoyosek dio kontuan izan behar dela, ikerketa eta frogak baliabideen arloko legeria nazionalen aurretiazko beharrezko eta nahikoazko hurbilketa edo harmonizazio falta dagoela, zeinak, zalantzarik gabe, EIAZren elaborazioa erraztu eta tresnaren aplikazioan arazo gehiago ekidindo zituen (DE HOYOS SANCHO, Montserrat. “La orden europea de investigación...”, op.cit., 6. or).

⁶⁹ JIMÉNEZ-VILLAREJO FERNÁNDEZ, Francisco. “Orden europea de investigación”, op.cit., 391. or; SALCEDO VELASCO, Andrés. “Orden Europea de Embargo Preventivo y Aseguramiento de Pruebas, Decomiso y Exhorto europeo”. CARMONA RUANO, Miguel; GONZÁLEZ VEGA, Ignacio: & MORENO CATENA, Víctor Manuel (Zuzk). *Cooperación judicial penal en Europa*. Madril: Dykinson, 2013. 611.-648. orr. ISBN: 978-84-9031-776-1. 618. or; eta AGUILERA MORALES, Marien, op. cit., 5. eta 6. orr.

⁷⁰ JIMÉNEZ-VILLAREJO FERNÁNDEZ, Francisco. “Orden europea de investigación”, op.cit., 395. or

⁷¹ JIMÉNEZ-VILLAREJO FERNÁNDEZ, Francisco. “Orden europea de investigación”, op.cit., 391. or; eta ARANGÜENA FANEGO, Coral, op.cit., 913. eta 914. orr

⁷² Frogak iturriak mugaz gaindi lortzeko eta tokiz aldatzeko prozeduraren sinplifikazioak eta azkartasunak arreta berezia merezi du. Horrela, alde batetik, tramite eta betekizun formalen sinplifikazioa inprimaki estandarizatuen erabileraren bitartez lortzen da; eta nazioz gaindiko frogak lortzea azkartzea, ikerketa aginduaren jasotzea, aitortpena eta exekuziorako epeak zehaztuz ematen da. Ikus, AGUILERA MORALES, Marien, op. cit., 6. or; eta ARANGÜENA FANEGO, Coral, op.cit., 914. or.

5.2. Definizioa eta aplikazio eremua

EIAren, helburu nagusia, xedea, ikerketa-neurriak burutzea da frogak lortzeko asmoz⁷³. EIAZ 1.1 artikuluekin bat, EIA estatu kide bateko agintaritzaren judizial batek emandako edo balioztatutako erabaki judizial moduan konfiguratu da, beste estatu kide batean ikerketa-neurri bat edo gehiago burutzeko, Zuzentarau honen arabera frogak lortzeko asmoz. EIA bat igortzeko aukera egongo da, arauaren arabera, dagoeneko exekuzio estatuko agintari eskudunen jabetzan dauden frogak lortzeko ere⁷⁴.

EIAren bitartez, beste estatu kide bateko agintaritzaren judizialari prozedura penaletan beharrezkoak diren ikerketak edo frogak egiteko aukera egongo da⁷⁵. Araudi aplikagarrian espresuki aipatzen ez diren arren, beste estatu kide batean bizilekuan sartzeko eta miazteko aginduaren aitortza eta exekuzioa bezalako jarduketa esanguratsuak ere, edo adituen frogak orokorrean, barnebiltzen ditu tresna honek. Gainerakoan, europar legegileak EIAren erabilera zigor atalase zehaztu baten gaineko ikerketara eta frogara ez murriztea aukeratu du⁷⁶.

Hala ere, EIAZk ez du ikerketa-neurri gisa ulertu behar denaren definizioz ematen eta kritikatu izan da horregatik⁷⁷. Hasieratik, gainera, zuzentaruaren tramitazioan argi eta

⁷³ RODRÍGUEZ-MEDEL NIETO, Carmen, op.cit., 296. or, azpimarratzen du EIAZk ez dituela ikerketa diligentziak bakarrik erregulatzen, baita kautela neurriak ere (32. art.), baina ikerketarako modu osagarrian egiten duela ulertzen du.

⁷⁴ Ikus, LRMRP 186.1 eta 186.2 artk. EIA frogak ziurtatzeko neurriak hartzeko edo ikerketa diligentziak egiteko ere igorri daiteke (LRMRP 203. art.).

⁷⁵ 2014/41/EB Zuzentaruako 25. Cdo-ak dioenez, prozesu penaleko edozein fasean erabili ahal izango da.

⁷⁶ Hala eta guztiz ere, delituak hiru urte baino gutxiagoko kartzela edo askatasuna gabetzen duen segurtasun neurria baino gutxiagoko zigor abstraktua badu, kriminalitate bikoitzaren kontrolak jardungo du, espainiar legearen arabera, derrigorrezkoa dena. 2014/41/EB Zuzentaruako 11. art.-n aukerazko gisa agertzen da: “(...) se podrá denegar el reconocimiento (...)”.

⁷⁷ JIMENO BULNES, Mar, op.cit., 169. eta 170. orr. Ikus, MANGIARACINA, Annalisa. “A New and Controversial Scenario in the Gathering of Evidence at the European Level: The Proposal for a Directive on the European Investigation Order”. *Utrecht Law Review*. 2014, 10 (1), 113.-133. orr. doi: <http://doi.org/10.18352/ulr.260>. 120. or; JIMENO BULNES, Mar, op.cit., 170. eta 171. orr; AGUILERA MORALES, Marien, op. cit., 9. or; ARANGÜENA FANEGO, Coral, op.cit., 916. or; JIMÉNEZ-VILLAREJO FERNÁNDEZ, Francisco. “Orden europea de investigación”, op.cit., 402. or; eta GONZÁLEZ MONJE, Alicia, op.cit., 83. or

garbi egon delarik EIAren oinarritzko helburua ikerketa-neurri bat edo bat baino gehiago hartzea dela eta ez horrekin lortu nahi den froga⁷⁸.

Aplikazio eremua, funtsean, praktikatu beharreko ikerketa-neurrietara hedatzen da, exekuzio estatuko agintari eskudunen eskuetan daudenak barne, baita froga gisa erabil daitezkeen objektuen suntsiketa, eraldaketa, desplazamendua, transferentzia edo besterentzea ekiditera bideratutako edozein ikerketa-neurri hartzera ere (EIAZ 32.1 art).

EIA indarrean sartzeak Exhortoa indargabetzen du eta, alderdi zehatz batzuetan salbu, laguntza judizialeko Hitzarmenak ordezkatzeko ditu⁷⁹. Arau konbentzional hauek subsidiarioki bakarrik izango dira aplikagarri, hau da, EIAren aplikazio material eta eremu lurraldetarrak barne hartzen ez duenean⁸⁰.

Aplikazio eremutik kanpo utzi ditu ikerketa-talde bateratuak eta talde horietan frogak lortzea⁸¹, Europar Batasuneko estatu kideen arteko zigor arloko laguntza judizialari buruzko Hitzarmeneko 13. artikuluan eta Kontseiluaren 2002/465/JAI EEn⁸² ezarri bezala⁸³. Baita Schengen Akordioaren aplikaziorako Hitzarmenaren mugaz gaindiko zaintza ere⁸⁴. Horrez gain, EIAren eremutik kanpo geratzen da zigor-arloko aurrekariak helarazteko araubidea ere, zeinak berariazko araudi bat izango duen (LRMRP 186.4 art.)⁸⁵.

⁷⁸ ARANGÜENA FANEGO, Coral, op.cit., 916. or. Rodríguez Medelek adierazi bezala, definizio egoki batek neurri batek ikertzeko xedea edo kautelazko ziurtatzea duen bereiztea ahalbidetuko zuen (RODRÍGUEZ-MEDEL NIETO, Carmen, op.cit., 309. or).

⁷⁹ RODRÍGUEZ-MEDEL NIETO, Carmen, op.cit., 308. eta 309. orr. Ez indargabetu, Zuzentarau batek ezin dituelako indargabetu nazioarteko Akordio eta Hitzarmenak. Egokia litzateke EBeko legegileak berak Hitzarmen hauetako zein zatik aplikagarri izaten jarraitzen duten, eta zeinek ez, zehaztea.

⁸⁰ EIAZk aipatzen du Danimarka eta Irlandak ez dutela parte-hartzerik izan bertan, beraz, froga arloko laguntza judizialeko harremanetan estatu hauekin aipatutako arau konbentzionalek jarraituko dute aplikagarri izaten.

⁸¹ Ikerketako talde bateratuen sorreraren bazterketa inplikaturako estatu kideen borondatearen autonomian oinarritzen dela eta ez elkarrekiko aitortzaren printzipioan esanez justifikatzen da, kasu hauetan frogak askatasun osoz zirkulatzen baitute taldeko kideen artean, horretarako EIA bat behar izan gabe (GONZÁLEZ MONJE, Alicia, op.cit., 83. or).

⁸² Ikerketa-talde bateratuei buruzko Kontseiluaren 2002/465/JAI EE, 2002ko ekainak 13koa.

⁸³ Hitzarmeneko 13.8 art., eta Esparru Erabakiko 1.8 art. aplikatzeko eskaeretan izan ezik.

⁸⁴ Ikus Zuzentarauko 8. eta 9. Cdoak. Mugaz gaindiko zaintza poliziaren lankidetzeta dela ulertzen da, ez judiziala. Hala ere, mugaz gaindiko zaintzak geolokalizazio balizak jartzea eta erabiltzea eskatzen badu, aurretiazko baimen judizialaz, EIA erabili beharko litzateke.

⁸⁵ 2009/315/JAI EE eta 2009/316/JAI EE aplikagarriak izango dira, zeinen bitartez ECRIS sistema ezartzen den lehenetsuneko tresna gisa.

5.3. Europako Ikerketa Aginduaren prozedura: igorpena eta exekuzioa

5.3.1. Agintaritza eskudunak

Elkarrekiko aitortzako edozein tresnetan bezala, EIA n agintaritza judizialen arteko komunikazioa zuzena da, lankidetzaren arloko agintaritza judizialaren kontzeptu zabala kontuan izanda⁸⁶. Europa mailako lankidetzaren arloan, Ministerio Publikoa, beti eta aho batez, agintaritza judizialaren kontzeptu zabalean barne hartzen dela gogorarazi behar da⁸⁷.

Igorpen agintaritzari dagokionez, bi agintaritza mota bereizten dira. Agintaritza judizialaren europar terminologiarekin batera, eta zuzentarauari lotuta dauden EBeko hogeita sei estatu kideen eredu prozesal ezberdinak direla eta, ikerketa gaitasuna ez da epaile edo fiskalen eskuduntza soilik eta polizia edo administrazio agintariena den sistemei lekua eman behar izan zaie, kasu horietan, EIAren igorpenerako ezinbesteko betekizun bezala agintaritza judizialak baliozkotzea beharrezkoa delarik.

Espainiar ordenamenduan, LRMRPk, epaileak eta fiskalak izango direla aurreikusi du EIA igorriko duten agintaritza judizialak, aurrez aipaturiko eta EIAZn aurreikusitako baliozkotze judiziala inoiz beharrezkoa izango ez delarik.

Exekuzio agintaritzari dagokionez, europar arauak estatu kide bakoitzaren eskuetan uzten du exekuzio agintaritza zehaztea, autoritate horrek EIA bat aintzatesteko eskumena izatea eta zuzentarau honen eta antzeko barne kasu batean aplikagarriak diren prozeduren arabera gauzatzen dela ziurtatzea soilik exijituz. Arau orokor gisa, agintaritza judiziala izatea eskatzen ez dela ikus daiteke, nahiz eta manuak baldintza hori gehitzen duen (baimen judizialaren baldintza) barne legerian horrela xedatzen denean (EIAZ 2 d) art.)⁸⁸.

⁸⁶ ROMERO PRADAS, María Isabel, *op.cit.*, 378. or

⁸⁷ JIMÉNEZ-VILLAREJO FERNÁNDEZ, Francisco. “Orden europea de investigación”, *op.cit.*, 404. eta 405. orr

⁸⁸ BACHMAIER WINTER, Lorena. “Prueba transnacional penal en Europa...”, *op.cit.*, 10. or; eta JIMENO BULNES, Mar, 178. or

LRMRPk, epaile eta fiskalen artean banatzen du exekuziorako eskumena, exekuzioa eskatzen den ikerketa-neurria oinarrizko eskubideen murriztailea den edo ez kontuan hartuta⁸⁹ (LRMRP 187. art.). Modu horretan, EIAREN harrera eta lehen ebaluazio baten efektuetarako irizpide funtzional bat aukeratzen da, MFri⁹⁰ esleitua, Espainian jasotzen diren EIA guztiak jaso eta hartu izana adierazi, erregistratu eta bere exekuzioa bermatzeaz arduratuko delarik (187.2 art.)⁹¹.

Esan dugun bezala, EIAREN aitortza eta exekuziorako agintari eskuduna MF bera edo epaile bat izan daiteke⁹². Behin erregistratu eta igorpen agintaritzari jaso izana adierazi ondoren, eskuduna den Fiskalak erabakiko du aitortza eta exekuzioaren inguruan dekretu bitartez. Hau da, Fiskaltzak EIAREN aitortza eta exekuzioa ezagutuko ditu edo objektiboki eta lurraldeari dagokionez aintzatesteko eta exekutatzeko eskumena duen epaileari helaraziko dio, EIAk oinarrizko eskubideak mugatzen dituen neurririk jasotzen dituenaren arabera⁹³ (187.2 art.). Jasotako EIAk oinarrizko eskubideak murrizten dituen neurriren bat badu eta ezin bada ordezkatu mugatzen ez dituen beste batekin, MFk agindu hori igorriko dio, LRMRP 187.3 artikulua arabera, eskumena duen epaileari aitortza eta exekuziorako⁹⁴.

Eskumena duen epaileari igorriko zaio EIA, eta ez du Fiskalak ebatziko nahiz eta aginduak oinarrizko eskubideak murrizten dituen neurririk ez izan, agintaritza igortzaileak espresuki adierazi badu ikerketa-neurria edo froga organo judicial batek exekutatu behar duela (LRMRP 187.2 b) art.).

⁸⁹ ARANGÜENA FANEGO, Coral, op.cit., 920. eta 921. orr

⁹⁰ Ikus MFren atribuzio honi buruz, JIMÉNEZ-VILLAREJO FERNÁNDEZ, Francisco. “Orden europea de investigación”, op.cit., 411. eta 412. orr; baita ARANGÜENA FANEGO, Coral, op.cit., 921. or

⁹¹ Horiek jasoko dituen Fiskaltza konkretua krimen motaren -terrorismoa, droga-trafikoa, ustelkeria, etab.- eta eskatutako ikerketa neurria edo froga gauzatuko den lurraldearen arabera zehazten da. Horrela, zigor arloko Europar Atlas Judizialak igorpen agintaritzari laguntzen dio bere EIA zein espainiar Fiskaltzatarako bidali bereizten -Fiskaltza espezializatua, Audientzia Nazionaleko Fiskaltza, Fiskaltza Probintziala-. Hala eta guztiz ere, Estatuko Fiskaltza Nagusiaren Lankidetzaren Unitatearen laguntza izan dezake.

⁹² DE HOYOS SANCHO, Montserrat. “La orden europea de investigación...”, op.cit., 9. or

⁹³ Baldin baditu ere, Fiskalak mota honetako eskubideak murrizten ez dituen beste batez ordezkatu erabaki dezake, aurretiaz igorpen agintaritzari honen berri emanaz.

⁹⁴ MFk egoki diren eginbideak gauzatu ahalko ditu, EIA zein epaile edo epaitegi eskuduni igorri behar zaion zehazte aldera, hark betearaz dezan (LRMRP 187.3 art.): Instrukzio Epaileak, Adingabeen Epaileak, Instrukzioko Epaile Zentralak, Zigor arloko Epaile Zentralak edo Adingabeen Epaile Zentralak.

Epaille eskudunak auto bidez ebatziko du aitortzaren eta exekuzioaren inguruan, eta erabaki horien berri eman beharko dio MFri, baita agintaritzaren eskatzaileari ere⁹⁵ (LRMRP 187.3 art. *in fine*).

5.3.2. Igorpenerako baldintzak eta transmisioa

LRMRPk modu orokorrean jasotzen du 189.1 artikuluan, igorpenerako baldintzak jasotzen direnean, agintaritzaren emaileak, “ofizioz nahiz alderdi batek eskaturik”, eman ahalko duela EIA bat. Aurreikuspen hau bat dator espainiar prozedura penalarekin, MFrekin batera, beste akusazio batzuk egotea ere baimentzen delako⁹⁶.

Eskatutako ikerketa-neurria Espainiako agintaritzaren eskudunak eramango du aurrera, baldin eta ikerketa-neurri hori Espainiako zuzenbidean existitzen bada eta antzekoa den barneko antzeko kasu baterako aurreikusita badago (LRMRP 206.1 art.). Kontuan hartu behar da eskatutako neurria oinarrizko eskubideak gutxiago murrizten dituen batengatik ordezteko ere posible dela (LRMRP 206.2 art.), edo eskatutako ikerketa-neurria Espainiako zuzenbidean existitzen ez denean edo ez dagoenean aurreikusita antzekoa den barneko kasu baterako (LRMRP 206.3 art.)⁹⁷.

Horrela, igorpen agintaritzak erabakiko du exekutatu behar den ikerketa-neurri konkretuaren inguruan (10. Cdo), hau da, EIAren igorpena baldintzatzen duten betekizunak betetzen direla egiaztatzeaz arduratzen da (11. Cdo): neurriaren beharra, proportzionaltasuna eta legezotasuna⁹⁸. Zalantzarik gabe, proportzionaltasunaren baldintza da eztabaida gehien sortzen duena, eta definitzeko zailena dena, Europar kontzeptu bateratu bat egitea ez aipatzearen⁹⁹.

⁹⁵ DE HOYOS SANCHO, Montserrat. “La orden europea de investigación...”, op.cit., 10. or

⁹⁶ ROMERO PRADAS, María Isabel, op.cit., 382. eta 383. orr

⁹⁷ EIAZ 6.1 art.-n azaldu bezala, agintaritzaren emaileak EIA bat eman ahalko du honako baldintza hauek betetzen direnean bakarrik: a) EIA ematea beharrezkoa eta proportzionatua izatea 4. art.-k erreferentzia egiten dien prozeduren xedeetarako, ikertuaren edo auzipetuaren eskubideak kontuan hartuta; eta b) aitortu eta betearazteko eskatzen diren ikerketa-neurriak EIA eman deneko barneko antzeko kasu baterako baldintza berdinetan haiek agindu ahal izatea.

⁹⁸ EIAZ 6.2 art.-k adierazi bezala, "las condiciones a que se refiere el apartado 1 serán evaluadas por la autoridad de emisión en cada caso".

⁹⁹ BACHMAIER WINTER, Lorena. “Prueba transnacional penal en Europa...”, op.cit., 15. or

Beharrezkotasuna eta proportzionaltasunaren artean lotura estua dago, proportzionaltasun printzipioak dakarren lehenengo eskakizuna neurria beharrezkoa izatea baita aurreikusitako helburua lortzeko (lortu nahi diren helburuen arrazoia justifikatzea)¹⁰⁰; hau da, exekuzio estatuan eskatu den neurria ezinbestekoa izatea igorpen estatuan burutzen ari den ikerketaren helburuetarako eta horren exekuzioaren bitartez, beharrezko datuak eta frogak lortzeko egokia izatea¹⁰¹.

Proportzionaltasunaren baldintzak, zalantzarik gabe, eskatutako ikerketa-neurriaren eta delituaren larritasunaren arteko haztapenari egiten dio aipamena. Bere praktikak subjektuen esfera indibidualean erasandako eraginak (bereziki, susmagarriaren edo akusatuaren eskubideak) eta horren larria ez den beste neurri baten existentzia ezak, baina eraginkortasun berdinarekin, konplexutasun handiagoa dakarte¹⁰².

Edonola ere, estatu kide batzuetan ikerketa penala ez da espainiar prozedura judizialean bezala kontrolatzen eta ikerketa-neurrien gaineko erabakia polizia agintarien esku geratzen da (balioztapen judizialarekin edo gabe), beraz, egokia da Zuzentarauak berariaz proportzionaltasun irizpidea aipatzea EIA guztietarako¹⁰³.

Hala ere, Zuzentarauak ez ditu, EIARI dagokionez, proportzionaltasun printzipioan ebaluatu beharreko jarraibideak ematen, ezta kontuan hartu beharreko elementuak zein liratekeen ere. Gainera, ez du bere aplikazio esparrutik at uzten larritasun gutxiko

¹⁰⁰ BACHMAIER WINTER, Lorena. “La Orden Europea de Investigación y el principio de proporcionalidad”, op.cit., 5. eta 6. orr

¹⁰¹ ARANGÜENA FANEGO, Coral, op.cit., 922. eta 923. orr.; Bachmaier Winter, L. Prueba transnacional penal en Europa..., op. cit., 15. or

¹⁰² ARANGÜENA FANEGO, Coral, op. et. cit

¹⁰³ Bachmaier Winterrek, Zuzentarauaren proposamena aztertzean, proportzionaltasunaren balioespena EIA emateko baldintza gisa espresuki ezartzea, agian, beharrezkoa ez zela aipatzen du, prozedura penal guztietan agintaritzak judizialak ikerketa-neurria eskatu edo agindu aurretik, batez ere, oinarrizko eskubideentzat murriztailea bada, betekizun hori baloratzera behartuta daudelako: GGEAk denbora luzez kontsolidatutako doktrina da. Hori dela eta, organo judizial guztiek, esaterako, komunikazioetan esku-hartzea eskatu aurretik, neurriaren proportzionaltasuna ebaluatuko dutela ziurtzat ematea posible izango litzatekeela ulertzen jarraitzen du, neurria lurralde nazionalean edo beste estatu kide bateko lurraldean exekutatu den kontuan hartu gabe. Beraz, betekizun hori espresuki egitea ez litzateke beharrezkoa, inplizituki beharrezko baldintza dela baieztatzen delarik, nahiz eta irizpidea barneratu izanaren egokitasuna azpimarratu. Ikus, BACHMAIER WINTER, Lorena. “Prueba transnacional penal en Europa...”, op.cit., 15. eta 16. orr; baita “La Orden Europea de Investigación: la propuesta de Directiva...”, op.cit., 81. or.

prozesuen froga eskaera: ez da EIA baten igorpenaren proportzionaltasun printzipioaren aurkako kontsideratuko litzatekeen zigor mugarik ezartzen (EIAZ 4.1 art.).

Proportzionaltasunaren kontzeptu komunik ez dugunez, EIA baten proportzionaltasuna behar bezala ebaluatzeko (nahiz eta ez homogeneouski) kontuan hartu beharreko elementuak zein diren gogoratzea egokia litzateke¹⁰⁴. Oro har, proportzionaltasun azterketa edo testak, honako elementu hauek hartuko lituzke kontuan: delituaren larritasuna, ikerketa eta auziperatzerako froga horren beharra, helburu bera lortzeko hain kaltegarria ez den beste neurririk ez egotea, neurria hartzeak subjektuari edo subjektuei eragiten dizkieten ondorioak eta, azkenik, neurria prozesuaren helburuetarako proportzioskoa izatea¹⁰⁵.

Hala eta guztiz ere, proportzionaltasuna eta beharrezkotasuna EIA igortzeko oinarrizko irizpideak baldin badira ere, elkarrekiko aitortza printzipioa hertsiki aplikatuz, balorazio hori igortzailea den agintaritzari soilik dagokio, horri buruzko urrapen batek EIAren aitortzaren edo exekuzioaren ukapena oinarritu ezin dezakeelarik. Dena den, Zuzentarauak EIA baten exekuzioa ordezkatzeko eta ukatzea baimentzen du, eskatutako neurria proportzionala ez denean exekuzio estatuko printzipioen arabera¹⁰⁶.

Bestalde, legezkoitasunaren baldintza, zehaztasun terminologiko urriarekin bada ere, EIAZ 6.1 b) artikuluan azaltzen da, aitortu eta betearazteko eskatzen diren ikerketa-neurriak EIA eman deneko barneko antzeko kasu baterako baldintza berdinetan haiek agindu ahal izatea adierazten denean. Baldintza honekin frogan "forum shopping" deiturikoa saihestu nahi da, hau da, prozedura ezagutzen duen Estatutik kanpo

¹⁰⁴ BACHMAIER WINTER, Lorena. "Prueba transnacional penal en Europa...", op.cit., 16. or

¹⁰⁵ Ikus, adibidez, FORDHAM, Michael & DE LA MARE, Thomas. "Understanding the principles of proportionality". JOWELL, Jeffrey & COOPER, Jonathan (Edk). *Understanding Human Rights Principles*. Oxford: Hart Publishing, 2001. 27.-89. orr. ISBN: 1841131695, 9781841131696; BACHMAIER WINTER, Lorena. "La Orden Europea de Investigación y el principio de proporcionalidad", op.cit., 4. or eta hurrengoak. Baita, ALEGREZZA, Silvia. "Collecting Criminal Evidence Across the European Union: The European Investigation Order Between Flexibility and Proportionality". RUGGERI, Stefano (Ed.), *Transnational Evidence and Multicultural Inquiries in Europe*. Heidelberg-New York: Springer, 2014. 51.-67. orr. ISBN: 978-3-319-02569-8.

¹⁰⁶ BACHMAIER WINTER, Lorena. "Prueba transnacional penal en Europa...", op.cit., 17. eta 18. orr

eskuratzea bere mugetatik kanpo lortuko ezin lukeena, neurria ezin izango litzatekeelako antzeko barne kasu batean hartu¹⁰⁷.

Azkenik, EIAZn adierazten den bezala, EIA bat igortzean, igorpen agintaritzak arreta berezia jarri beharko lioke EBOEG 48. artikuluan aitortutako eskubideen errespetua bermatzeari (12. Cdo). Gutunaren esparruan, zigor arloan aitortzen diren oinarrizko eskubideen funtsezko giltza baitira errugabetasun presuntzioa eta defentsa eskubidea. Zuzentarau honen arabera agindutako ikerketa-neurri baten edozein mugaketa Gutunaren 52. artikuluan xedatutako beharrezkotasun, proportzionaltasun eta bilatu behar dituen interes orokorraren, edo besteen eskubideak eta askatasunak babesteko beharraren baldintzekin bat etorri behar da¹⁰⁸.

Adierazi den moduan, beraz, eskakizun edo baldintza horien konkurrentzia, igorpen agintaritzak bakarrik ebaluatu ahal izango ditu kasu bakoitzerako, banaka, baliozkotze autoritatea barne (11. Cdo eta EIAZ 2.2 II art.). Printzipioz, beraz, proportzionaltasunaren eta beharraren baloraketa igorpen agintaritzak egingo du aurretiaz, exekuzio agintaritzak eskatutako ikerketa-neurriaren egokitasun edo proportzionaltasuna kontrolatzetik kanpo geratuta. Hala ere, igorpen agintaritzak ezin du alde batera utzi exekuzio agintaritzak zenbait eskumen mantentzen dituela baldintza hauek berrikusteko, leunki aldatzen direlarik baldintzaren arabera¹⁰⁹.

*Lex loci*aren araberako kontrol hau ez dator bat ebazpen judizialen elkarrekiko aitortzaren teknikarekin eta atzerriko gaiaren funtsezko alderdien gutxieneko ezagutza eta analisisa inplikatzeko du¹¹⁰. Neurri hori Espainian antzeko kasu batean hartzea posible den jakiteko, beharrezkoa da EIAk jatorria eta justifikazioa dituen atzerriko kasua ezagutzea.

¹⁰⁷ RODRÍGUEZ-MEDEL NIETO, Carmen, op.cit., 376-378. orr. Ikus baita, ARANGÜENA FANEGO, Coral, op.cit., 905.-939. orr

¹⁰⁸ ROMERO PRADAS, María Isabel, op.cit., 386. or

¹⁰⁹ ROMERO PRADAS, María Isabel, op.cit., 385. or. EIAZ 6.3 art.-k dioenez, "cuando la autoridad de ejecución tuviera razones para creer que no se han cumplido las condiciones a que se refiere el apartado 1, podrá consultar a la autoridad de emisión sobre la importancia de la ejecución de la OEI. Tras esta consulta, la autoridad de emisión podrá decidir la retirada de la OEI".

¹¹⁰ DE HOYOS SANCHO, Montserrat. "La orden europea de investigación...", op.cit., 11. or

Nolanahi ere, espainiar exekuzio agintaritzak, eskatutako neurria Espainiako legeriarekin bateragarria dela kontrolatu behar du (betekizunak, baldintzak, eta abar), gai honen inguruan indarrean dagoen araudiaren interpretazio jurisprudenzialaren egokitzapena ere barneratuz¹¹¹. Espainiar ordenamenduaren ikuspuntutik, ikerketa-neurri edo froga konketuaren proportzionaltasun kontrola¹¹² ere gehituko da. Proportzionaltasun kontrol hori aurrez azaldutako EIA igorri duen agintaritzak, bere araudi propio eta jurisprudenziaren arabera burutu beharrekoaren gehigarria delarik. Posible da, noski, espainiarrarekin bat ez etortzea, oraindik arrazoi gehiagorekin, EBren esparruan zigor arloko ikerketa-neurri eta frogen premisa eta betekizunen harmonizaziorik ez egonda.

Horrela, arauak gaiaren gutxieneko garrantziaren baldintza zehazten ez duenez, erakunde igorlea izan behar da proportzionaltasuna kontrolatu behar duena. Kontrol hori funtsezkoa da, ez baitzen arrazoizkoa edo proportzionala izango EIA bat igortzea garrantzi gutxiko gaiatzat, nahiz eta igortzeko eskakizun normatiboen edukia bete¹¹³.

5.3.3. Aitortza eta exekuzioa

Aitortzaren eta exekuzioaren ezaugarri orokorreari dagokionez, EIAZk baliokidetasun printzipio deiturikoa jarraitzen du. EIAZ 9.1 artikulua dioen bezala, exekuzio agintaritzak EIA ikerketa-neurria estatu exekutatzailaren agintaritzak berak agindu balu bezala, modu berean eta egoera berdinean, exekutatu duela ziurtatuko du, aitortpenari edo exekuzioari uko egiteko arrazoiak (11. art.), edo zuzentarau honetan aipatzen diren luzapenerako arrazoiaren bat (15. art.) inbokatzea erabakitzen badu salbu¹¹⁴. Printzipio hau aginduaren exekuzio epeetara ere hedatzen da (EIAZ 12.1 art.)¹¹⁵.

¹¹¹ DE HOYOS SANCHO, Montserrat. “La orden europea de investigación...”, op.cit., 12. or

¹¹² Ikus, RODRÍGUEZ-MEDEL NIETO, Carmen, op.cit., 379. or: exekuzio agintaritzak neurriaren legaltasun eta proportzionaltasun baldintzak kontrolatu behar ditu, bere legislazio propioaren parametroekin bat *-lex loci-*. Bestalde, AMBOS, Kai. *Derecho penal europeo*. Madril: Civitas, 2017. ISBN: 978-84-9152-655-1. 560. or, ondorio berera iristen da: printzipio hau exekuzio agintaritzak egin beharreko oinarritzko eskubideen bortxaezintasun kontrolaren parte da.

¹¹³ LRMRP 207 g) art.: Espainian uko egiteko derrigorrezko arrazoia da.

¹¹⁴ Era berean, kontutan izan behar da antzeko barneko kasu batean aplikagarriak diren prozeduretan baimen judiziala galdatzea ere posible dela (EIAZ 2 d) art.).

¹¹⁵ Aitortpenaren edo exekuzioaren ebazpena onartu eta ikerketa-neurria antzeko barneko kasuetako azkartasun eta lehentasunekin burutuko da, EIAZ 12. art.-ko denborazko epeen mugen barnean.

Beste estatu bateko lurraldean burututako froga besterik gabe eta bere arauen bidez onartzeak eragina izan dezake zigor-prozedurako subjektu pasiboaren eskubideetan eta horretan oinarritzen da frogen trukaketa askearen zailtasuna, "froga penalen zirkulazio libre" deiturikoa¹¹⁶. Zentzu honetan, EIAZk, eskatutako diligentziaren froga onargarritasuna bermatzeko, eskatzen den EIAren ikerketa-neurria (edo kautelarra) exekutatzekoan aplikagarria den sistema juridikoari dagokionez, izaera orokorrez *lex fori*ak jardungo duela aurreikusten du, beti ere, ez badu *lex loci*aren kontrakoa esaten (EIAZ 9.2 art.)¹¹⁷. Helburua froga hau azkenean eraginkorra ez izatea saihestea da *lex fori* ez betetzeagatik¹¹⁸ eta, aldi berean, *lex fori*aren inposizioa saihesten du exekuzio estatuaren *lex loci*arekin bateragarria ez bada¹¹⁹.

EIA aintzatestea erabaki ondoren, exekuzio agintaritzak EIAk jasotako neurri bera exekutatu duen edo beste neurri batekin ordeztu duen erabaki behar du. EIAZ 10. artikulua, hasierako "ikerketa neurri desberdinak erabiltzea" izenpean, LRMRP 206. artikuluan jaso denak ("EIA n eskatutako ikerketa-neurriak betearaztea"), hainbat hipotesi bereizten ditu. Garrantzitsua da kontuan hartzea exekuzio organoak eskatutako desberdinak diren neurrietara jotzearen aukerak estatuen arteko lankidetzaz bultzatzen duela, EIAren ukapenarekin ez amaitzeko, bere eraginkortasuna bermatuz¹²⁰.

A. Errekurtsoak

EIAZ 14.1 artikuluan hurrengoa xedatzen da: "Los Estados miembros velarán por que las vías de recurso equivalentes a las existentes en un caso interno similar sean

¹¹⁶ ROMERO PRADAS, María Isabel, op.cit., 391. or

¹¹⁷ *Locus regit actum* eta *forum regit actum* printzipioen arteko konbinazioa ikus daiteke, 2000. urteko Elkarrekiko Laguntzaren Europar Hitzarmenean ez bezala, azken printzipio hau eskusibotasunez sustatzen zelarik (4. art.).

¹¹⁸ ROMERO PRADAS, María Isabel, op.cit., 391. or. Horregatik, eta EIAren exekuzio zuzena eta galdatutako izapideekin bat datorrela bermatzeko, gainera, igorpen agintaritzak bere herrialdeko agintariak EIAren exekuziora bertaratzeko eska dezake (9.4 art.).

¹¹⁹ Bachmaier Winterren iritziz, *bere oinarrizko printzipio juridikoekin* bateragarria ez bada, aurreikuspen honek, alde batetik, lankidetzaz bultzatzen du eta, bestetik, atzerrian lortutako froga-iturrien onargarritasuna (BACHMAIER WINTER, Lorena. "Prueba transnacional penal en Europa...", op.cit., 27. or).

¹²⁰ JIMENO BULNES, Mar, op.cit., 182. or; eta MARTÍNEZ GARCÍA, Elena. *La orden europea de investigación: actos de investigación, ilicitud de la prueba y cooperación judicial transfronteriza*. Valencia: Tirant Lo Blanch, 2016. ISBN: 978-84-9119-114-8., 70. or

aplicables a las medidas de investigación indicadas en la OEI¹²¹. Horrez gain, EIA igorri zen fondoko arrazoiak igorpen estatuan errekurtsu baten bitartez soilik inpugnatu daitezke, exekuzio estatuan oinarritzko eskubideen bermeei kalterik egin gabe (14.2 art.).

LRMRP 24.1 artikulua da gai hau jasotzen duena. Horren arabera, berraztertze eta apelazio errekurtsua tarteratu ahal izango da Epailearen autoen aurka eta lortutako proben helarazpena etetea erabaki ahalko da aginduaren aitopenen eta betearazpenaren aurkako errekurtsua aurkeztu den kasuetan (LRMRP 211. art.).

Eskatutako ikerketa-neurriak aitortzea, ukatzea, etetea edo atzeratzea erabakitzen duten MFren dekretuen aurka, erabakitzeko eskumena duen kasuetan, Espainian ez dago errekurritzeko aukerarik. Jakina denez, Fiskalaren dekretuak, eta ez soilik nazioarteko lankidetzako gaietan, errekurri ezinak direla da arau orokorra¹²².

LRMRPk mota horretako diligentziak erabakitzeko eskuduna MF dela ezartzen duen kasuetan ere ezingo da organo jurisdikzionaletara jo ikerketa diligentzia edo frogaren eskakizuna berriro eginez. Fiskalak aitortza eta exekuziorako eskuduna denean agintzea erabakitzen dituen EIAren exekuziorako egintza material konkretuak aurkaratzea ere ez da posible izango Espainian, zeinak ez diren errekurritgarriak izango igorpen estatuan ere¹²³.

EIAri buruzko erabakiak inpugnatzeko sisteman hutsune hau egoteak babesgabezia eragin dezake¹²⁴, eta, beraz, EBH 6. artikulua urratzea. Horrez gain, Espainiako legegilearen erabaki hau ez dator bat EIAZ 14. artikulua jasotzen duen bermearekin. Honek, exekuzio Estatuan ere errekurtsua tarteratzeko aukera espresuki bermatzen ez badu ere, manuaren edukiaren osotasunetik ondorioztatzen da EIAren igorpena edo

¹²¹ Rodríguez-Medelek azpimarratzen du “Exhortoa”n derrigorrezkoa zela estatu kideek barne legerian errekurtsu bat edukitzea neurri hertsatzaileak hartzen zirenerako. Ez dugu aurkitzen obligazio hori Zuzentarau honetan. EIAk jaso ditzakeen neurrien garrantzia dela eta, europar legegileak espresuki exijitu behar zien estatu kideei, aginduaren exekuzioak edo atzerapenak eragiten dientzat errekurtsu aukera bat aurreikustea. Ikus, RODRÍGUEZ-MEDEL NIETO, Carmen, op.cit., 457. eta 458. orr

¹²² DE HOYOS SANCHO, Montserrat. “La orden europea de investigación...”, op.cit., 13. or

¹²³ DE HOYOS SANCHO, Montserrat. “La orden europea de investigación...”, op.cit., 16. or

¹²⁴ COSTA RAMOS, Vania, op.cit., 343. or; eta RODRÍGUEZ-MEDEL NIETO, Carmen, op.cit., 457. or eta hurrengoak.

igorpen eza, EIAren aitortza eta exekuzioa edo eza, bi estatuetan, igorpen eta exekuzio estatuetan¹²⁵, legedi nazional desberdinek ezarritako kondizio konkretuetan, agintaritza judizialen errekurso edo berrikuste objektu izateko aukera egon behar dela.

Edonola ere, akusatuaren defentsak duen aurretiazko aukera bat, Espainiako sistema eta bertako Fiskaltzaren dekretuen errekurritzeko ezintasuna ezagutzen badu, igorpen agintariari eskatzea da EIA n espresuki adierazi dezala, Fiskal hartzaileak zuzenean eskuduna den epaileari helaraztea, eta azken honek erabakitzea aitortzaren eta exekuzioaren inguruan, eta ez MFk, legalki egin dezakeen arren¹²⁶.

B. Aitortza eta exekuzioa ukatzea

EIAZ 11. artikulua, LRMRPk 207. artikulua bezala, EIA baten onarpena edo/eta exekuzioa ukatzeko arrazoiak ezartzen ditu¹²⁷. Beste estatu kide baten ebazpena aitortzeari edo exekutatzeari uko egiteko arrazoiak elkarrenganako aitortza printzipioaren "sismografo" antzeko zerbitu osatzen dute: zenbat eta mugatuagoak izan, estatuen betebeharra handiagoa izango da aldarrikatutako lankidetzan eta, beraz, elkarrenganako aitortza printzipioaren garapen maila handiagoa izango da¹²⁸.

Zentzu horretan, adierazi behar da EIAren konfigurazioaren inguruan Estatu arteko akordioa errazteko efektuekin, Zuzentarauan (eta LRMRPn) azkenean jasotako EIAren aitortza edo/eta exekuzioari uko egiteko arrazoiak, tasatuak izaten jarritzen duten arren, jatorrian Zuzentarauaren Proposameneko 10. artikuluan¹²⁹ aurreikusitako lau

¹²⁵ Ikus, AMBOS, Kai. *Derecho penal europeo*, op.cit., 560. or eta hurrengoak.

¹²⁶ DE HOYOS SANCHO, Montserrat. "La orden europea de investigación...", op.cit., 18. eta 19. orr. Ikertuaren/akusatuaren defentsaren aukera hau LRMRP 187.2 b) art.-n xedatutakotik ondorioztatzen da.

¹²⁷ Ildo horretan, LRM 29. art. eta, EIAri erreferentzia eginez, LRMRP 205.1 art.

¹²⁸ AGUILERA MORALES, Marien, op. cit., 19. or. Zentzu berean, Jiménez-Villarejo Fernández, F. (2011). Orden europea de investigación: ¿adiós a las comisiones rogatorias?, op. cit, 196. or. Azken honek ondorengo baieztatzen du: "la existencia de causas de denegación supone, en sí misma, una derogación parcial del principio de reconocimiento mutuo, por lo que deben ser reducidas a las estrictamente necesarias". Zentzu berean, Jimenez-Villarejok dioenez, izatez, muturreko elkarrekiko aitortza printzipioaren indargabetze partziala suposatzen dute, hertsiki beharrezkoak diren mugatu beharko liratekeelarik (JIMÉNEZ-VILLAREJO FERNÁNDEZ, Francisco. "Orden europea de investigación", op.cit., 426. or).

¹²⁹ Manu honetan uko egiteko lau arrazoi bakarrik jasotzen ziren: "Se podrá denegar el reconocimiento o la ejecución del EEI en el Estado de ejecución en cualquiera de los siguientes supuestos: a) si una inmunidad o un privilegio conforme a la legislación del Estado de ejecución hace imposible ejecutar el

haietatik nabarmenki gehitu direla, gainera, hautazko gisa jaso direlarik (eta ez derrigorrezko). Horrek tresna honi malgutasuna ematen laguntzen du, nahiz eta aplikazioari automatismoa murrizten dion¹³⁰.

Espainiako legegileak LRMRPn jasotako EIA ukatzeko arrazoiak aztertzean, lehenik eta behin bere izaera inperatiboa nabarmendu behar da (LRMRP 207.1 art.). Legegileak elkarrekiko aitorten printzipioaren eraginkortasuna ahalik eta gehien aprobetxatu nahi izan du eta mugaz gaindiko ebidentziei buruzko ebazpen judizialak zirkulatzeko ahalik eta birtualitate gehien eman, baina Espainiako prozedura penalaren oinarrizko printzipioei eta EIA bat exekutatzeko eragin diezaiekeen oinarrizko eskubideak babesteari uko egin gabe. Horregatik, ezinbestekoa izango da onarpena eta betearazpena ukatzea, horretarako arrazoiak badaude, Zuzentarauak horren inguruan agertu dituen aukerazko terminoak gaindituz¹³¹.

Horrela bada, EIA bat aitortzeko eta exekutatzeko ukapen arrazoiak hiru taldetan sailka daitezke¹³²: elkarrekiko aitorpenerako tresna guztien uko egiteko arrazoi arruntak, EIAren uko egiteko arrazoi propioak eta ikerketa-neurri zehatzak dituen EIA bati aplikagarriak diren uko egiteko arrazoiak (azken hauek ez ditugu aipatuko lanaren luzera mugatuagatik).

LRMRP 207. artikuluekin bat, espainiar agintari eskudunak EIAren aitortza eta exekuzioa ukatuko du 32.1 artikuluko kasuetan, elkarrekiko aitortzako edozein tresnetan eskatutako neurrien aitorten edo exekuzioaren ukapenerako arrazoi orokorrak jasotzen

EEI; b) si, en un caso concreto, su ejecución pudiera lesionar intereses esenciales de seguridad nacional, comprometer a la fuente de la información, o implicar la utilización de información clasificada relacionada con determinadas actividades de inteligencia; c) si, en los casos contemplados en el artículo 9, apartado 1, letras a) y b), no existe otra medida de investigación con la que se pueda alcanzar un resultado similar; d) si el EEI ha sido emitido para los procedimientos a los que se refiere el artículo 4, letras b) y c) y la medida no sería autorizada en un caso nacional similar".

¹³⁰ BACHMAIER WINTER, Lorena. "La propuesta de Directiva europea sobre la orden de investigación penal...", op.cit., 47. or

¹³¹ GRANDE SEARA, Pablo. "Reconocimiento y ejecución en España de una Orden Europea de Investigación". GONZÁLEZ CANO, María Isabel (Zuz). *Integración Europea y Justicia Penal*. Valencia: Tirant lo Blanch, 2018. 436.-482. orr. ISBN: 978-84-9190-178-5. 459. eta 460. orr

¹³² Ibidem

direlarik. 32.1 artikulua xedatutakoek derrigorrezko izaera dute¹³³ eta 32.2 eta 32.3 artikuluan jasotako aukerazko uko egiteko arrazoiak dira (“La autoridad judicial española podrá denegar el reconocimiento y la ejecución de una orden o resolución...”). Horrez gain, Espainiako agintaritzak judizialak ebazpen baten aitorpena eta betearazpena ere ukatu ahal izango du, baldin eta 20.1 artikuluan araututakoa ez den -”eurodelituak”- arau-hauste bat bada eta hori ez badago tipifikatuta Espainiako zuzenbidean¹³⁴.

EIAren aitorpena eta exekuzioari uko egiteko arrazoi espezifikoak LRMRP 207.1 artikuluan daude, derrigorrezko izaeraz, EIAZ 11.1 artikuluan jasotako uko egiteko arrazoi guztiak barne hartzen dituelarik, immunitate existentziarekin zerikusia dutenak (11.1 a) art.) eta *non bis in idem* printzipioari (11.1 d) art.) dagozkionak salbu, LRM 32.1 artikuluan jasotzen direlarik.

Nahiz eta 2014/41/EB Zuzentarauak aitorpena ukatzeko aukerazko arrazoi gisa (“se podrá denegar”)¹³⁵ ezartzen dituen, esan bezala, Espainiar legeak derrigorrezko bihurtzen ditu (LRMRP 207.1 art.: “denegar”). Uko egiteko arrazoiaren izaerazko ezberdintasun horrek arazoak sor ditzake praktikan. Estatu batzuek beren legerietan aukerazko ukapen arrazoi gisa txertatu dituzte -Zuzentaruaren agertzen den moduan-, eta

¹³³ “Las autoridades judiciales españolas no reconocerán ni ejecutarán las órdenes o resoluciones transmitidas en los supuestos regulados para cada instrumento de reconocimiento mutuo y, con carácter general, en los siguientes casos: a) Cuando se haya dictado en España o en otro Estado distinto al de emisión una resolución firme, condenatoria o absolutoria, contra la misma persona y respecto de los mismos hechos, y su ejecución vulnerase el principio non bis in idem en los términos previstos en las leyes y en los convenios y tratados internacionales en que España sea parte y aún cuando el condenado hubiera sido posteriormente indultado; b) Cuando la orden o resolución se refiera a hechos para cuyo enjuiciamiento sean competentes las autoridades españolas y, de haberse dictado la condena por un órgano jurisdiccional español, la sanción impuesta hubiese prescrito de conformidad con el Derecho español; c) Cuando el formulario o el certificado que ha de acompañar a la solicitud de adopción de las medidas esté incompleto o sea manifiestamente incorrecto o no responda a la medida, o cuando falte el certificado, sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 19; d) Cuando exista una inmunidad que impida la ejecución de la resolución”.

¹³⁴ DE HOYOS SANCHO, Montserrat. “La orden europea de investigación...”, op.cit., 22. or. dioenez, LRMRP 32.3 art. inbokatu ahal izango da “...cuando se refiera a hechos que el Derecho español considere cometidos en su totalidad o en una parte importante o fundamental en territorio español”.

¹³⁵ Ikus, BACHMAIER WINTER, Lorena. “La propuesta de Directiva europea sobre la orden de investigación penal...”, op.cit., 13. or. Uko egiteko arrazoiak aukerazko izaera izateak, nolabait, elkarrekiko aitortza bultzatzen du, baina zalantzak ere sortzen ditu erantzunak aurreikusteko ezintasuna dela eta, estatu desberdinetako agintariek euren irizpideen arabera aplikatuko dituztelako edo ez, nahiz eta supostu faktikoak analogoak izan.

beste batzuk, esaterako, Espainiak, derrigorrezko izaerarekin egin dute¹³⁶. Dirudienez, azken irtenbide hau ez da ebazpen penalen elkarrekiko aitorpenerako eraginkortasunik handiena eskaini dezakeena; eta, bestetik, epaile edo fiskal eskudunak kasuaren inguruabar zehatzak ebaluatzea galarazten du¹³⁷.

Aipatutako desberdintasunen aurrean, ez litzateke harritzekoa EBJAk bere iritzia eman behar izatea EBeko harmonizazio arauen transposizioetako mota honetako aldaketen onargarritasunaren inguruan¹³⁸.

a. Estatu exekutatzailearen legean, EIAren exekuzioa eragozten duen pribilegio baten existentzia

EIAren aitortza eta exekuzio ukatuko da “cuando exista un privilegio procesal que haga imposible ejecutar la orden europea de investigación o normas sobre determinación y limitación de la responsabilidad penal en relación con la libertad de prensa y la libertad de expresión en otros medios de comunicación que imposibiliten a la autoridad competente española su ejecución” (LRMRP 207.1 a) art).

EIAZ 20. Cdo-an azaltzen den bezala, estatu exekutatzailearen legeria nazionalari dagokio kontuan hartu daitezkeen pribilegioak zehaztea, esaterako, lanbide batzuetan aplika daitezkeen "sekretu profesionalaren" adierazpenetan oinarritu daitezkeenak, hala nola, medikuak, abokatuak, itzultzaileak eta interpretatzaile judizialak edo elizako eta gurtze ministroak, baita ikertuarekin duten ahaidetasun harremana dela eta lekuko gisa deklaratzeko betebeharraren salbuespenak ere (PKL 416, 417. eta 707. artk).

¹³⁶ Alemaniar transposizio Legean -*Gesetz über die internationale Rechtshilfe in Strafsachen*-, 2017ko abuztuak 27an erreformatua, batzuk derrigorrezko ukapen arrazoiak dira, 91 b) IRG -"Die Leistung der Rechtshilfe ist nicht zulässig"-, eta beste batzuk aukerazkoak, 91 e) -"Die Bewilligung der Rechtshilfe kann nur abgelehnt werden, wenn (...)". Lege Italiarrean, 108. zenbakidun Dekretu legegilean, 10. art.-k uko egiteko derrigorrezko arrazoi gisa ezartzen ditu: "non si provvede al riconoscimento e all'esecuzione dell'ordine di indagine...". Hala ere, Zuzentarauaren transposizioarako portugaldar arauak, 88/2017 Legeak, abuztuak 21ekoak, 22.1 art.-n ezartzen du uko egiteko aukerazko arrazoiak izango direla: "O reconhecimento ou a execução de uma DEI podem ser recusados se...".

¹³⁷ DE HOYOS SANCHO, Montserrat. "La orden europea de investigación...", op.cit., 22. or

¹³⁸ DE HOYOS SANCHO, Montserrat. "La orden europea de investigación...", op.cit., 23. or. Lankidetzak judizialeko beste tresna batzuen transposizioan ere eman izan da, adibidez, "babeserako europar aginduan".

EIAren exekuzioa galarazten duten prentsa edo adierazpen askatasunarekin harremanetan, erantzukizun penalaren determinazio edo mugaketaren inguruko arauen existentziari aipamena egiten diotenak zailagoak dira interpretatzeko¹³⁹. Batzuen iritziz, ez da erraza ondorioztatzea uko egiteko arrazoi horrek informazio iturriak babesten saiatzen diren araei (adibidez, informazioaren profesionalentzako aurrez aipaturiko "pribilegio" analogoak ezarriz) edo adierazpen askatasunerako eskubidearekin harremanetan, kriminalitate bikoitza exijitzen duten araei egiten dien erreferentzia¹⁴⁰.

b. Segurtasun nazionalako interesak kaltetzea, informazio iturriaren babesa edo inteligentzia jardueren inguruko informazio sailkatua erabiltzea

LRMRP 207.1 b) artikuluekin bat, Espainiako agintaritza eskudunak EIAren aitortza eta betearazpena ukatuko du “cuando la ejecución pudiera lesionar intereses esenciales de seguridad nacional, comprometer a la fuente de información o implicar la utilización de información clasificada relacionada con determinadas actividades de inteligencia”¹⁴¹.

Martínez Garcíaen iritziz, saski-naski baten aurrean gaude (“cajón de sastre”), *a priori* zaila baita exekuzio estatuak lankidetzarako interesa izan ez dezakeen kasuak aurreikustea, gainera, nagusiki politikoak diren arrazoiek bertan babesa aurki dezaketelarik¹⁴².

¹³⁹ GRANDE SEARA, Pablo, op.cit., 465. eta 466. orr

¹⁴⁰ BACHMAIER WINTER, Lorena. “La propuesta de Directiva europea sobre la orden de investigación penal...”, op.cit., 49. or

¹⁴¹ JIMÉNEZ CRESPO, Luis Miguel. “Cuestiones prácticas relativas al Exhorto europeo de obtención de pruebas”. ARANGÜENA FANEGO, Coral; DE HOYOS SANCHO, Montserrat, & RODRÍGUEZ-MEDEL NIETO, Carmen (Zuzk). *Reconocimiento mutuo de resoluciones penales en la Unión europea*. Cizur Menor: Thomson Reuters Aranzadi, 2015. 521.-544. orr. ISBN: 978-84-9098-604-2. 540. eta 541. orr. Jimenez Crespok gehitzen du epaile edo fiskal batentzat oso konplexua izan daitekeela segurtasun nazionalari eragin diezaioketen inguruabarren konkurrentzia baloratzea, informazio iturriak arriskuan jartzea edo inteligentziaren jarduera jakin batzuekin lotutako informazio sailkatua inplikatzan duten EIAren inguruabarren konkurrentzia ebaluatzea.

¹⁴² MARTÍNEZ GARCÍA, Elena. *La orden europea de investigación: actos de investigación...*, op.cit., 74. or; AMBOS, Kai. *Derecho penal europeo*, op.cit., 562. or, anakronikotzat kalifikatzen du exekuzioa ukatzeko arrazoi hau. BACHMAIER WINTER, Lorena. “La propuesta de Directiva europea sobre la orden de investigación penal...”, op.cit., 5. or, azpimarratzen du, barne-mailan gertatzen den moduan, beharrezkoa den proba segurtasun nazionalaren edo informazio sailkatuko interesari eragite soilak ez lukeela justifikatu beharko EIAren exekuzioa ukatzea.

Uko egiteko arrazoi hau jada 2008/978/JAI EE 13.1 g) artikuluan aurreikusten zen, frogak lortzeko europar Exhortoari buruzkoan. Hala ere, 18. Cdo-ak, eskatutako lankidetzaren arrazoi hau inbokatuta ukatzeko aukeraren mugaketa garrantzitsu bat jasotzen zuen. Exhortoaren aitortza eta exekuzioaren inguruan erabakitzerako orduan, eskatutako estatuaren agintari eskudunak, modu analogoan, igorpen estatuak eskatutako informazioa barne ikerketa penal baterako beharrezkoa balitz bezala jokatu beharko zuen. Beraz, estatu exekutatuaren legediak epailea isilpeko informazioa egiaztatzen ahalbidetzen badu edo baita prozedura penal batean ikerketarako garrantzitsuak diren ikerketaren inguruko isilpeko dokumentuen desklasifikazioa lortzera ere, elkarrekiko aitortza printzipioaren arabera, epaile horrek europar exhorto baten konplimenduan modu berean jarduteko ahalmena izan behar du¹⁴³.

Egia da EIAZk ez duela horrekiko analogoa den xedapenik, ezta “Considerando”etan ere, beraz, *a priori*, puntu honetan EIAren ukapen marjina exhortoaren kasuan baino zabalagoa da¹⁴⁴.

c. “Lurraldetasun klausula” deiturikoa

LRMRP 207.1 c) artikulua EIAZko 11.1 e) artikuluan aurreikusitako ukapen arrazoia jasotzen du, “lurraldetasun klausula” gisa ere ezaguna dena. Xedapen honekin bat etorritik, Espainian EIA baten aitortza eta exekuzioa ukatuko da "cuando la resolución se refiera a hechos que se hayan cometido fuera del Estado emisor y total o parcialmente en territorio español, y la conducta en relación con la cual se emite la orden europea de investigación no sea constitutiva de delito en España"¹⁴⁵.

¹⁴³ BACHMAIER WINTER, Lorena. “La propuesta de Directiva europea sobre la orden de investigación penal...”, op.cit., 50. or

¹⁴⁴ Ibidem. Bachmaierren iritziz, hura litzateke elkarrekiko aitortza printzipioarekin koherenteena den interpretazioa eta EIAZ 9.1 art-n sustengatu daiteke: “la autoridad de ejecución deberá reconocer una OEI (...) y se asegurará de que se ejecute de la misma manera y bajo las mismas circunstancias que si la medida de investigación de que se trate hubiera sido ordenada por un autoridad del Estado de ejecución”.

¹⁴⁵ EIAri uko egiteko arrazoi hori sartzeak balorazio desberdinak jaso ditu doktrina prozesalistan. Jiménez-Villarejok lurraldetasun printzipioan oinarritutako arrazoi hau sartu izana, “causa de denegación inadecuada o excesiva en un contexto de libre circulación de pruebas” kontsideratzen du. Xede horretarako ezarritako beste mekanismo supranazional batzuen bitartez konpondu behar direla dio ikerketa paraleloek sor ditzaketen eskumen juridikzionalen ondorioz sortzen diren arazoak, eta ez lankidetzaren judiziala ukatuz. Ikus, JIMÉNEZ-VILLAREJO FERNÁNDEZ, Francisco. “Orden europea de investigación”, op.cit., 429. or. Ikus, baita, GRANDE SEARA, Pablo, op.cit., 468. eta 469. or; eta

Ikus daitekeen moduan, hiru baldintza dira beharrezko uko egiteko arrazoi hau inbokatu ahal izateko¹⁴⁶: a) lehenik, beharrezkoa da EIA motibatzen duten delitu-egintzak igorpen estatuaren lurraldetik kanpo egin izana; b) era berean, egintza horiek guztiz edo zati batean espainiar lurraldean egin izana exijitzen da, baina ez Espainian egindako delituaren zatia garrantzitsua edo ezinbestekoa izatea¹⁴⁷; eta, azkenik, c) beharrezkoa da EIA emateko arrazoa izan den jokabidea Espainian delitua ez izatea¹⁴⁸.

Bestalde, EIAZk eta, berarekin batera, LRMRPk, laugarren baldintza bat baztertu du, Zuzentarauaren Proiektuko 10.1 f) artikuluan espresuki aurreikusten zena EIAren uko egiteko arrazoi honen funtzionamendurako: EIA neurri hertsatzaile baten exekuzioa eskatzea¹⁴⁹.

d. EIAren exekuzioaren bateraezintasuna EBH 6. artikulutik eta EBOEGtik eratorritako obligazioekin

LRMRP 207.1 d) artikularekin bat (EIAZ 11.1 f) artikuluan aurreikusia¹⁵⁰), EIAren

PILLADO GONZÁLEZ, Esther. “Los motivos de denegación del reconocimiento y la ejecución por las autoridades españolas de una orden europea de investigación que requiera medidas específicas de investigación”. JIMÉNEZ CONDE, Fernando (Zuz). *Adaptación del Derecho procesal español a la normativa europea y a su interpretación por los tribunales*. Valencia: Tirant Lo Blanch, 2018. ISBN: 978-84-9190-949-1. 68. or: arrazoi hau barneratzea elkarrekiko konfiantza faltaren erakusle da eta negatiboki eragiten du mugaz gaindiko delinkuentziaren aurkako borrokan. Zentzu berean, BACHMAIER WINTER, Lorena. “La propuesta de Directiva europea sobre la orden de investigación penal...”, op.cit., 53. or. RODRÍGUEZ-MEDEL NIETO, Carmen, op.cit., op. cit., 379. or, ordea, ezinbestekoa dela uste du uko egiteko arrazoi hau barneratzea, Europako eremu komunean egun dagoen portaeren tipifikazioan dagoen desberdintasunari begira.

¹⁴⁶ GRANDE SEARA, Pablo, op.cit., 468. or

¹⁴⁷ RODRÍGUEZ-MEDEL NIETO, Carmen, op.cit., 439. or

¹⁴⁸ Rodríguez-Medel Nietoren arabera, azken baldintza horri dagokionez, bi ñabardura egin behar dira: alde batetik, bere eskakizunarekin ulertzea ematen da, jokabidea Espainian delituzko ekintza balitz eta nahiz eta egintzak igorpen Estatuaren lurraldetik kanpo eginak izan, ez litzatekeela egokia eskatutako lankidetzak ukatzea; eta, bestetik, ez da LRM 20. art.-n aurreikusitako 32 delitu figurekin lotutako inolako salbuespenik aurreikusten, exekuzio agintariak tipifikazio bikoitzaren kontrol hori gauzatu beharko duelarik, nahiz eta ikertutako egitateak ez izan delitu horietako bat. Ikus, RODRÍGUEZ-MEDEL NIETO, Carmen, op.cit., 439. eta 440. orr

¹⁴⁹ GRANDE SEARA, Pablo, op.cit., 468. or

¹⁵⁰ Zuzentarauko 11.1 f) letran aukerazko arrazoi gisa jaso da. Ikus, RODRÍGUEZ-MEDEL NIETO, Carmen, op.cit., 445. or. Lankidetzak judizialaren ukapen arrazoi hau, beste instrumentu batzuetan "Considerando"-etan bakarrik aipatua izan zena, EIAren aitortpena edo exekuzioa ukatzeko arrazoi gisa jasotzen da espresuki. BACHMAIER WINTER, Lorena. “Prueba transnacional penal en Europa...”, op.cit., 25. or, uko egiteko arrazoi honen formulazioa zabala dela ulertzen du, ez delako beharrezkoa exekuzioak oinarritzeko eskubideen urraketa ekarriko duela frogatzea edo egiaztatzea, nahikoa delarik oinarritzeko eskubideen urraketa posible bat sor daitekeela "uste izateko arrazoiak izatea", europar ordena publikoaren klausula modura kalifikatu daitekeelarik.

aitortza eta exekuzioa ukatuko da “cuando existan motivos fundados para creer que la ejecución de la medida de investigación indicada en la orden europea de investigación es incompatible con las obligaciones del Estado español de conformidad con el artículo 6 del Tratado de la Unión Europea y de la Carta de los Derechos Fundamentales de la Unión Europea”.

Europako legegileak borondate argia erakusten du zigor arloko lankidetzak judiziala oinarrizko eskubideen errespetu zorrotzarekin burutzeko¹⁵¹. Zehatzago esateko, 19. Cdo-ak erakusten du Batasuneko askatasun, segurtasun eta justizia eremuaren eraikuntza elkarrekiko konfiantzan eta estatu kideek Batasunaren Zuzenbidearekiko duten errespetuaren presuntzioan oinarritzen dela, bereziki, oinarrizko eskubideen errespetuan. Baina *iuris tantum* presuntzio bat dela ñabartzen du eta, horregatik, EIA adierazitako ikerketa-neurri bat exekutatzek interesatuaren oinarrizko eskubide bat urratuko duenaren eta estatu exekutatuak Gutunean aitortutako oinarrizko eskubideen babesari buruzko bere obligazioak beteko ez dituenaren inguruan “funtsezko arrazoiak” baleude, EIAren exekuzioa ukatu egin behar dela¹⁵².

Hala eta guztiz ere, EIAren exekuzioari uko egiteko arrazoi honen kasu konkretuan, honen konkurrentzia edo konkurrentzia eza baloratzerakoan aintzat hartu behar diren oinarrizko eskubideen babes estandarrekin zerikusia duten arazo praktikoak planteatu daitezke, ebaluatzerakoan kontuan hartu beharrekoak. Zentzu horretan, gogoratu behar da EBJAko jurisprudentziaren arabera¹⁵³, materia harmonizatuetan, oinarrizko eskubideen babes maila Gutunetik eta EBJAko jurisprudentziaz eratorritzen dela (estandar komunitarioa), eta ez estatu exekutatuaren barneko ordenamendu konstituzionaletik. Hori dela eta, EIA eskatutako ikerketa-neurriak oinarrizko

¹⁵¹ Zentzu honetan, 18. Cdo: "la presente Directiva no podrá tener por efecto modificar la obligación de respetar los derechos fundamentales y los principios jurídicos fundamentales enunciados en el artículo 6 del Tratado de la Unión Europea (TUE) y en la Carta".

¹⁵² DE HOYOS SANCHO, Montserrat. “La orden europea de investigación...”, op.cit., 25. or

¹⁵³ 2013ko otsailak 26ko EBJAren epaia azpimarratu behar da, *Melloni* kasua gisa ezaguna (asunto C-399/11). Ikus, GARCÍA SÁNCHEZ, Beatriz. “Tribunal de Justicia de la Unión Europea - TJUE - Sentencia de 26.02.2013, Melloni, C-399/11 - "Cooperación policial y judicial en materia penal - Orden de detención europea - Procedimientos de entrega entre Estados miembros - Resoluciones dictadas a raíz de un juicio en el que el interesado no ha comparecido - Ejecución de una pena impuesta en rebeldía - Posibilidad de revisión de la sentencia". ¿Homogeneidad o estándar mínimo de protección de los derechos fundamentales en la Unión Europea?”. *Revista de Derecho Comunitario Europeo*. 2013, 46. zk, 1137.-1156. orr. ISSN: 1138-4026.

eskubideen babeserako "estandar europarra" betetzen badu, ezingo da ukatua izan arrazoi honengatik, exekuzio estatuan indarrean dagoen babesaren "estandar nazional"era iristen ez bada ere¹⁵⁴.

e. Portaeraren tipifikazio bikoitza falta izatea (edo kriminalitate bikoitza)

LRMRP 207.1 e) artikulua EIAZ 11.1 g) artikuluan aurreikusitako uko egiteko arrazoia transposatzen du, EIAren aitortza eta exekuzioa ukatuko dela ezarriz "cuando la conducta que dio origen a la emisión de la orden europea de investigación no sea constitutiva de delito con arreglo al Derecho español y no esté recogida en las categorías de delitos a que se refiere el apartado 1 del artículo 20, siempre que la pena o medida de seguridad privativas de libertad previstas en el Estado de emisión para el delito a que se refiere la orden europea de investigación fuera de un máximo de al menos tres años"¹⁵⁵.

Manu horiek modu sistematikoan interpretatuz gero, Espainiako agintaritzak eskudunak EIAren exekuzioa ukatuko duela ondorioztatu dezakegu horren igorpenaren arrazoi diren ekintzak ez badira delitu espainiar legearen arabera¹⁵⁶. Hala ere, arau honek bi salbuespen ditu: bata, delitu mota dela eta, bestea, eskatutako neurria dela eta.

Lehenik, Espainiako agintaritzak eskudunak ezingo dio EIA exekutatzeari uko egin kriminalitate bikoitza falta dela eta, estatu emaileko agintaritzak igorritako emate-formularioan (LRMRP 207.1 e) II. art.), egiaztatze jokabide hori 20.1 artikuluan aipatutako delituen artean badago, eta EIAk aipatzen duen deliturako estatu emailean aurreikusitako zigorra edo askatasunaz gabetzeko segurtasun-neurria gehienez ere hiru urtekoa dela adierazten badu¹⁵⁷. Hortaz, nahikoa izango da igorpen agintaritzak inguruabar horiek azaltzea espainiar agintaritzari igorritako EIAren formularioan, honek

¹⁵⁴ GRANDE SEARA, Pablo, op.cit., 469. or

¹⁵⁵ Hau LRMRP 207.2 art-rekin osatzen da, zeinaren arabera, uko egiteko arrazoi hau ez den aplikagarri izango, inolaz ere, LRMRP 206.1 art-k erreferentzia egiten dien "pribilegiozko" ikerketa-neurriei.

¹⁵⁶ GRANDE SEARA, Pablo, op.cit., 470. eta 471. orr

¹⁵⁷ BACHMAIER WINTER, Lorena. "La propuesta de Directiva europea sobre la orden de investigación penal...", op.cit., 54. eta 55. orr, delituen kategoria zerrendan agertzeaz gain, delituak igorpen Estatuan kriminalitate bikoitzaren kontrola ekiditeko zigor atalase jakin bat aurreikusita edukitzearen exigentziarekin kritikoa da, bigarren baldintza honek nahasketa gehitzen duelarik soilik.

kriminalitate bikoitzaren kontrola saihestu dezan, eta ez dezan EIAren exekuzioa ukatzeko aukerarik izan berau falta delako¹⁵⁸.

Bigarrenik, ezingo da EIAren exekuzioa ukatu, EIA n eskatutako ikerketa-neurria LRMRP 206.1 artikuluan aurreikusitakoren bat bada (LRMRP 207.2 art)¹⁵⁹. Neurri hauek nahitaez egon behar dute Espainiako sistema juridikoan eta ezin dira ordezkatuak izan beste batzuentatik. Ondorioz, LRMRP 206.1 artikuluko neurri horietan elkarrekiko aitortzak intentsitate handiagoarekin funtzionatzen du beste kasuetan baino; izan ere, aipatu bezala, ez da kriminalitate bikoitzaren kontrolik emango eta, gainera, ez dira delitu tipo jakin baten edo zigor atalase zehatz baten betekizunak aplikatuko, neurri horientzat Espainiako legeria prozesalaren aplikazio zorrotzarekin eskatu ahal liratekeenak¹⁶⁰.

f. Neurria exekutatzea ez egotea Espainiako legeriak antzeko barne kasu baterako baimendua

LRMRP 207.1 f) eta g) artikuluek EIAren aitortza eta exekuzioa ukatzeko bi arrazoi jasotzen dituzte, izendatzaile komun gisa EIA n eskatutako neurria hartzea ezinezkoa izatea dutelarik, espainiar zuzenbidearen arabera, antzeko barne kasu batean. Uko egiteko arrazoi hauek EIAZ 11.1 h) eta c) artikuluetan aurreikusitakoekin bat datoz, hurrenez hurren.

Lehenengoarekin bat, EIAren exekuzioa ukatuko da “cuando el uso de la medida de investigación indicada en la orden europea de investigación esté limitado, con arreglo al Derecho español, a una lista o categoría de delitos, o a delitos castigados con penas de a

¹⁵⁸ GRANDE SEARA, Pablo, op.cit., 471. or

¹⁵⁹ Hau da, nahiz eta EIAren igorpenerako arrazoi den ekintza ez izan delitu Espainian, Espainiako agintaritzak eskudunak ezingo dio exekuzioari uko egin ondorengo neurri hauetako bat eskatu bada ondoren: a) Jada Espainiako agintaritzak eskudunak dauzkan informazioa edo frogak lortzea, baldin eta, nazioko zuzenbidearen arabera, informazio edo froga horiek zigor-arloko prozedura baten testuinguruan lortu badira edo Europako ikerketa-aginduren xedeetarako lortu badira; b) agintaritzak polizial edo judizialen esku dauden datu-baseetan dagoen informazioa lortzea, zigor-arloko prozedura baten esparruan zuzenean eskuratu baitaiteke; c) lekuko, peritu, biktima, ikertu edo auzipetu baten edo hirugarren baten deklarazioa, Espainiako lurraldean; d) Espainiako zuzenbidean aurreikusita dagoen eta oinarritzko eskubideak eta berme prozesalak murrizten ez dituen edozein ikerketa-neurri; e) telefono-zenbaki edo IP helbide jakin batzuen titularrak diren pertsonen identifikazioa.

¹⁶⁰ DE HOYOS SANCHO, Montserrat. “La orden europea de investigación...”, op.cit., 27. or

partir de un determinado umbral que no alcance el delito a que se refiere la orden europea de investigación”¹⁶¹. Hala ere, uko egiteko arrazoi hau ez zaie aplikatzen, inolaz ere, 206.1 artikulua aitpatzen dituen ikerketa-neurriei (LRMRP 207.2 art.).

Eta bigarrenarekin bat, EIAren exekuzioa ukatuko da “cuando la orden europea de investigación se refiera a procedimientos incoados por las autoridades competentes de otros Estados miembros de la Unión Europea por la comisión de hechos tipificados como infracciones administrativas en su ordenamiento cuando la decisión pueda dar lugar a un proceso ante un órgano jurisdiccional en el orden penal, y la medida no estuviese autorizada, con arreglo al Derecho del Estado de ejecución, para un caso interno similar”.

Ikus daiteke, uko egiteko bi arrazoi hauek gainjarriegin ohi direla, LRMRP 206.3 artikulua araber, Espainiako agintaritzaren eskudunak eskatutakoaz beste ikerketa-neurri bat betearaz dadin aginduko duelako, baldin eta neurri hori egokia bada eskatutako aginduaren xedeetarako (eskatutako ikerketa-neurria ez denean Espainiako zuzenbidean existitzen edo ez dagoenean aurreikusita antzekoa den barne kasu baterako)¹⁶²; eta, bere kasuan, estatu emaileko agintaritzari eskatutako laguntza ematea ezinezkoa dela adierazi eta jakinaraziko dio, LRMRP 206.5 artikuluaekin bat. Horregatik, nahiz eta LRMRP 207. artikulua ez duen espresuki adierazten, arrazoi horietako batengatik EIAren exekuzioa interesatutako neurriaren ordezkapena ezinezkoa denean soilik ukatuko dela ulertu behar da¹⁶³.

6. IRITZIA ETA ONDORIOAK

EIA tresna berritzaile bat da, EBean elkarrekiko aitortza printzipioa indartzeko asmoa duena. Ukaezina da aurrerapauso bat dela gai honetan, estatu kide desberdinetako agintarien arteko prozedura eta komunikazio guztiak sinplifikatu eta azkartzeko aukera eman eta agintari judizialen arteko lankidetzaren hobetzeko helburua duelako.

¹⁶¹ GRANDE SEARA, Pablo, op.cit., 472. or.

¹⁶² Ikus, BACHMAIER WINTER, Lorena. “La propuesta de Directiva europea sobre la orden de investigación penal...”, op.cit., 55. or

¹⁶³ GRANDE SEARA, Pablo, op.cit., 473. or

Hala ere, esan behar da EBean lankidetzaren judizialaren arloan “etxea teilatutik” hasi zela: lehenengo, ebazpen judizialen elkarrekiko aitortzaren tresnak onartu ziren eta, urte batzuk beranduago, berme prozesalen harmonizazio arauak¹⁶⁴. Elkarrekiko aitortzan eta autoritateen arteko konfiantzan oinarrituriko lankidetzaren zuzeneko sistema berri hauek, mugaz gaindiko lankidetzaren eraginkortasunaren behararekin batera, legeri nazionalen hurbilketa ekarriko zutelaren zutela pentsatu zen, baina agerian geratu zen emaitza hori lortzea ez zela erraza¹⁶⁵.

Elkarrekiko aitortza printzipioa lankidetzaren judizialaren oinarri izateko beharrezkoa da gutxiengo harmonizazio bat¹⁶⁶. Horrela, tresna honen akatsetako baten aurrean gaude: aitortzan bakarrik zentratzen dela eta ez estatu desberdinetako legeen harmonizazioan.

Hala ere, aitortu behar da Agindu hau bezalako europar arau bat inplementatzeak lankidetzaren judizial eta polizialaren esparruan eboluzio handia suposatzen duela, mugak izan arren, frogak lortzeko erregimen bakarra sortzen duelako, EIA bat igortzeko beharrezkotasun eta proportzionaltasun printzipioak errespetatuz beti. Hemen ere, kritikagarria da legislazio nazionalen artean ez dagoela inongo aurretiazko harmonizaziorik beharrezko betekizunen inguruan, ezta proportzionaltasun printzipioaren edo beste baldintza batzuen inguruko parametro konkretuetan ere¹⁶⁷.

Horrela, Batasunean oinarritzko eskubideen interbentzio arloan minimo baten garapenak ere, Estatu desberdinek oinarritzko eskubideei ematen dioten babesean desnibela sortzen du. Egun, izaera honetako eskubide baten bortxaketa larria gertatzen bada, honen baloraketa arau nazionaletara delegatzen da eta honek asimetria arriskutsu bat sor dezake, bortxaketa berdinen aurrean ondorio prozesal desberdinekin aurkituko garelako.

¹⁶⁴ DE HOYOS SANCHO, Montserrat. “Algunas dificultades y cuestiones pendientes en la cooperación judicial penal en el ámbito de la Unión Europea relativas a las garantías procesales”. GONZÁLEZ CANO, María Isabel (Zuz). *Integración Europea y Justicia Penal*. Valencia: Tirant lo Blanch, 2018. 89.-124. orr. ISBN: 978-84-9190-178-5. 112. or

¹⁶⁵ AMBOS, Kai. “¿Reconocimiento mutuo versus garantías procesales?”, op.cit., 25. or

¹⁶⁶ MARTÍNEZ GARCÍA, Elena. “La orden europea de investigación”. GONZÁLEZ CANO, María Isabel (Zuz). *Integración Europea y Justicia Penal*. Valencia: Tirant lo Blanch, 2018. 403.-435. orr. ISBN: 978-84-9190-178-5. 430. or

¹⁶⁷ DE HOYOS SANCHO, Montserrat. “La orden europea de investigación...”, op.cit., 39. or

Probaren balorazio judiziala ere desberdina izango da interpretazio nazional edo nazioz gaindiko baten aurrean¹⁶⁸.

Proporzionaltasunari dagokionez ere, Europan ez dago printzipio honen kontzepzio komunik, ez dago ideia komunik ikerketa-neurri penal bat proporziozkoa denaren inguruan. Honek frogen zirkulazio askea oztopatu dezake, ikusi bezala EIA eskatzeko baldintzetan printzipio garrantzitsua baita, eta estatu bakoitzeko epaile bakoitzak balorazio desberdinak egin ditzakeelako. Exekutatzean ere, elkarrekiko aitortza printzipioan aurrera eginez, estatu kideak ez dira konforme agertzen beste estatu batzuetatik datozen ebazpenak “itsuan” exekutatzerakoan¹⁶⁹, estatu bakoitzaren barne parametroak desberdinak direlako eta ez dagoelako aipatu dugun europar estandar bat.

Aipatzekoa da, EIAri dagokionez, zehazki, ukatzeko arrazoiak barneratzearekin ere, elkarrekiko aitortza printzipioaren automatikotasun hori arriskuan jartzen dela eta bilatzen den eraginkortasuna gal dezakeela. Suspentsio, ordezkapen, atzerapen eta uko egiteko arrazoi batzuk interpretazio oso zabalak izatearen arriskua ere badute eta, ondorioz, lankidetzaren arin eta eraginkorra salbuesten duten arrazoiak asko izatearen arriskua dago. Gainera, lanean zehar aipatutako MFren dekretuen errekurriezintasuna ere azpimarratzekoa da.

EIA elkarrekiko aitortzako tresna garrantzitsua izatera iritsi daiteke, baina horretarako beharrezkoa da legeri penal eta prozesu penalen hurbilketan aurrera egitea, mugaz gaindiko frogak lortzean benetako lankidetzaren judizial bat sustatu eta ezartzeko¹⁷⁰.

¹⁶⁸ MARTÍNEZ GARCÍA, Elena. “La orden europea de investigación”, op.cit., 431. or

¹⁶⁹ BACHMAIER WINTER, Lorena. “La Orden Europea de Investigación y el principio de proporcionalidad”, op.cit., 22. or

¹⁷⁰ TINOCO PASTRANA, Ángel. “La transposición de la orden europea de investigación en materia penal en el ordenamiento español”. *Freedom, Security & Justice: European Legal Studies*. 2018, 3.zk, 116.-145. orr. ISSN-e: 2532-2079. 144. or

BIBLIOGRAFIA

- AGUILERA MORALES, Marien. “El Exhorto Europeo de Investigación: a la búsqueda de la eficacia y la protección de los derechos fundamentales en las investigaciones penales transfronterizas”. *Boletín Oficial del Ministerio de Justicia*. 2012, 2145. zk, 2012ko abuztua, 1.-27. orr.
- ALEGREZZA, Silvia. “Collecting Criminal Evidence Across the European Union: The European Investigation Order Between Flexibility and Proportionality”. RUGGERI, Stefano (Ed.), *Transnational Evidence and Multicultural Inquiries in Europe*. Heidelberg-New York: Springer, 2014. 51.-67. orr. ISBN: 978-3-319-02569-8.
- ALIAGA CASANOVA, Alfonso Carlos. “La Ejecución en la Unión Europea de las resoluciones de embargo preventivo de bienes y aseguramiento de pruebas. La víctima y su derecho al cobro de la indemnización”. *Estudios jurídicos*. 2008, 2008. zk, 1.-49. orr. ISSN-e: 1888-7740.
- AMBOS, Kai. “¿Reconocimiento mutuo versus garantías procesales?”. DE HOYOS SANCHO, Montserrat (Zuz), *El proceso penal en la Unión Europea: garantías esenciales*. Valladolid: Editorial Lex Nova, 2008. 25.-39. orr. ISBN: 978-84-8406-881-5.
- AMBOS, Kai. *Derecho penal europeo*. Madril: Civitas, 2017. ISBN: 978-84-9152-655-1.
- ARANGÜENA FANEGO, Coral. “Orden europea de investigación: próxima implementación en España del nuevo instrumento de obtención de prueba penal transfronteriza”. *Revista de Derecho Comunitario Europeo*. 2017, 58. zk, 905.-939. orr. ISSN: 1138-4026.
- BACHMAIER WINTER, Lorena. “El exhorto europeo de obtención de pruebas en el proceso penal. Estudio y perspectivas de la propuesta de Decisión Marco”. ARMENTA DEU, Teresa & GASCÓN INCHAUSTI, Fernando (Zuzk). *El Derecho Procesal Penal en la Unión Europea. Tendencias actuales y perspectivas de futuro*. Madril: Colex, 2006. 131.-178. orr. ISBN: 84-8342-007-4.
- BACHMAIER WINTER, Lorena. “La Orden Europea de Investigación y el principio de

- proporcionalidad”. *Revista General de Derecho Europeo*. 2011, 25. zk. ISSN-e: 1696-9634.
- BACHMAIER WINTER, Lorena. “La Orden Europea de Investigación: la propuesta de Directiva europea para la obtención de pruebas en el proceso penal”. *Revista española de derecho europeo*. 2011, 37. zk, 71.-93. orr. ISSN: 1579-6302.
- BACHMAIER WINTER, Lorena. “La propuesta de Directiva europea sobre la orden de investigación penal: valoración crítica de los motivos de denegación”. *Diario La Ley*. 2012, 7992. zk. ISSN: 1989-6913.
- BACHMAIER WINTER, Lorena. “Prueba transnacional penal en Europa: la Directiva 2014/41 relativa a la Orden Europea de Investigación”. *Revista General de derecho europeo*. 2015, 36. zk. ISSN-e: 1696-9634.
- CAIANIELLO, Michele. “You can’t always counterbalance what you want”. *European Journal of Crime, Criminal Law and Criminal Justice*. 2017, vol. 25, 4. zk, 283.-298. orr. ISSN: 0928-9569.
- COSTA RAMOS, Vania. “Medios procesales de impugnación de la orden europea de investigación: aportaciones a la interpretación del art. 14 de la Directiva”. VIDAL FERNÁNDEZ, Begoña; ARANGÜENA FANEGO, Coral & DE HOYOS SANCHO, Montserrat (Zuzk). *Garantías procesales de investigados y acusados. Situación actual en el ámbito de la Unión Europea*. Valencia: Tirant Lo Blanch, 2018. 337.-380. orr. ISBN: 978-84-9190-320-8.
- DE HOYOS SANCHO, Montserrat. “Sobre la necesidad de armonizar las garantías procesales en los enjuiciamientos de personas jurídicas en el ámbito de la Unión Europea. Valoración de la situación actual y algunas propuestas”. *Revista General de Derecho Procesal*. 2017, 43. zk. ISSN-e: 1696-9642
- DE HOYOS SANCHO, Montserrat. “Algunas dificultades y cuestiones pendientes en la cooperación judicial penal en el ámbito de la Unión Europea relativas a las garantías procesales”. GONZÁLEZ CANO, Maria Isabel (Zuz). *Integración Europea y Justicia Penal*. Valencia: Tirant lo Blanch, 2018. 89.-124. orr. ISBN: 978-84-9190-178-5.
- DE HOYOS SANCHO, Montserrat. “La orden europea de investigación: reflexiones

- sobre su potencial efectividad a la vista de los motivos de denegación del reconocimiento y ejecución en España”. *Revista General de Derecho Procesal*. 2019, 47. zk. ISSN-e: 1696-9642.
- DE JORGE MESAS, Luis Francisco. “La cooperación judicial penal en la unión europea. Las claves del sistema del reconocimiento mutuo: soberanía compartida, interoperabilidad de los sistemas jurídicos y garantía procesal del reconocimiento”. Zuzendaria: Juan Antonio Robles Garzón. Doktorego Tesia. Malagako Unibertsitatea, Zuzenbide Fakultatea, Malaga, 2014.
- DE LUCAS MARTÍN, Ignacio. “La prueba en el proceso penal en el contexto de la Unión Europea”. DE HOYOS SANCHO, Montserrat (Zuz). *El proceso penal en la Unión Europea: garantías esenciales*. Valladolid: Editorial Lex Nova, 2008. 424.-431. orr. ISBN: 978-84-8406-881-5.
- DELGADO MARTÍN, Joaquín. “La orden de detención europea y los procedimientos de entrega entre los estados miembros de la Unión Europea”. *Cuadernos de Derecho Judicial*. 2003, 13. zk, 281.-380. orr. ISSN: 1134-9670.
- DOMÍNGUEZ RUIZ, Lidia. “La orden europea de investigación: el camino hacia un régimen europeo uniforme en materia de prueba penal”. FUENTES SORIANO, Olga; GONZÁLEZ CANO, María Isabel, & JIMÉNEZ CONDE, Fernando (Koordk.). *Adaptación del Derecho Procesal Español a la Normativa Europea y su interpretación por los tribunales*. Valencia: Tirant lo Blanch, 2018. 337.-344. orr. ISBN: 978-84-9190-949-1.
- FORDHAM, Michael & DE LA MARE, Thomas. “Understanding the principles of proportionality”. JOWELL, Jeffrey & COOPER, Jonathan (Edk). *Understanding Human Rights Principles*. Oxford: Hart Publishing, 2001. 27.-89. orr. ISBN: 1841131695, 9781841131696.
- GARCÍA SÁNCHEZ, Beatriz. “Tribunal de Justicia de la Unión Europea - TJUE - Sentencia de 26.02.2013, Melloni, C-399/11 - "Cooperación policial y judicial en materia penal - Orden de detención europea - Procedimientos de entrega entre Estados miembros - Resoluciones dictadas a raíz de un juicio en el que el interesado no ha comparecido - Ejecución de una pena impuesta en rebeldía - Posibilidad de revisión de la sentencia". ¿Homogeneidad o estándar mínimo de

- protección de los derechos fundamentales en la Unión Europea?”. *Revista de Derecho Comunitario Europeo*. 2013, 46. zk, 1137.-1156. orr. ISSN: 1138-4026.
- GASCÓN INCHAUSTI, Fernando. “Investigación transfronteriza, obtención de prueba penal en el extranjero y derechos fundamentales”. GÓMEZ COLOMER, Juan Luis; BARONA VILAR Silvia; & CALDERÓN CUADRADO, María Pía (Koordk.). *El Derecho Procesal español del Siglo XX a golpe de tango, Liber Amicirun, en homenaje y para celebrar su LXX cumpleaños*. Valencia: Tirant Lo Blanch, 2012. 1245.-1272. orr. ISBN: 9788490048504.
- GASCÓN INCHAUSTI, Fernando. “Reconocimiento mutuo de resoluciones de embargo preventivo y aseguramiento de prueba: análisis normativo”. ARANGÜENA FANEGO, Coral; DE HOYOS SANCHO, Montserrat, & RODRÍGUEZ-MEDEL NIETO, Carmen (Zuzk), *Reconocimiento mutuo de resoluciones penales en la Unión europea*. Cizur Menor: Aranzadi, 2015. 323.-362. orr. ISBN: 978-84-9098-604-2.
- GLESS, Sabine. “Free movement of evidence in Europe”. ARMENTA DEU, Teresa & GASCÓN INCHAUSTI, Fernando (Zuzk). *El Derecho Procesal Penal en la Unión Europea. Tendencias actuales y perspectivas de futuro*. Madrid: Colex, 2006. 121.-130. orr. ISBN: 84-8342-007-4.
- GÓMEZ-JARA DÍEZ, Carlos. “Orden de detención europea y Constitución Europea: reflexiones sobre su fundamento en el principio de reconocimiento mutuo”. *Diario La Ley*. 2004, 4. zk, 1606.-1615. orr. ISSN: 0211-2744.
- GONZÁLEZ CANO, María Isabel. “El Proyecto de Decisión Marco sobre el exhorto europeo de medios de prueba”. MORENO CATENA, Víctor Manuel & ARROYO ZAPATERO, Luis. *La Prueba en el Espacio Europeo de Libertad, Seguridad y Justicia Penal*. Nafarroa: Thomson Reuters Aranzadi, 2006. 95.-116. orr. ISBN: 84-8355-083-0.
- GONZÁLEZ MONJE, Alicia. *Cooperación jurídica internacional en materia penal e intervención de comunicaciones como técnica especial de investigación*. Granada: Comares, 2017. ISBN: 9788490455104.
- GRANDE MARLASKA-GÓMEZ, Fernando, & DEL POZO PÉREZ, Marta. “La

- obtención de fuentes de prueba en la Unión europea y su validez en el proceso penal español”. *Revista General de Derecho Europeo*. 2011, 24. zk. ISSN-e: 1696-9634.
- GRANDE SEARA, Pablo. “Reconocimiento y ejecución en España de una Orden Europea de Investigación”. GONZÁLEZ CANO, María Isabel (Zuz). *Integración Europea y Justicia Penal*. Valencia: Tirant lo Blanch, 2018. 436.-482. orr. ISBN: 978-84-9190-178-5.
- JIMÉNEZ CRESPO, Luis Miguel. “Cuestiones prácticas relativas al Exhorto europeo de obtención de pruebas”. ARANGÜENA FANEGO, Coral; DE HOYOS SANCHO, Montserrat, & RODRÍGUEZ-MEDEL NIETO, Carmen (Zuzk). *Reconocimiento mutuo de resoluciones penales en la Unión europea*. Cizur Menor: Thomson Reuters Aranzadi, 2015. 521.-544. orr. ISBN: 978-84-9098-604-2.
- JIMÉNEZ-VILLAREJO FERNÁNDEZ, Francisco. “Orden europea de investigación: ¿adiós a las comisiones rogatorias?”. ARANGÜENA FANEGO, Coral (Koord). *Cooperación judicial civil y penal en el nuevo escenario de Lisboa*. Granada: Comares, 2011. 175.-204. orr.
- JIMÉNEZ-VILLAREJO FERNÁNDEZ, Francisco. “Orden europea de investigación”. JUANES PECES, Ángel (Zuz). *Cooperación jurídica penal internacional*. Madrid: Memento experto Francis Lefebvre, 2016. 387.-441. orr.
- JIMENO BULNES, Mar. “Orden europea de investigación en materia penal”. JIMENO BULNES, Mar (Zuz). *Aproximación legislativa versus reconocimiento mutuo en el desarrollo del espacio judicial europeo: una perspectiva multidisciplinar*. Barcelona: Bosch, 2016. 151.-208. orr. ISBN: 978-84-945803-5-2.
- KOSTORIS, Roberto. “Orden europea de investigación y derechos fundamentales”. VIDAL FERNÁNDEZ, Begoña; ARANGÜENA FANEGO, Coral & DE HOYOS SANCHO, Montserrat (Zuzk). *Garantías procesales de investigados y acusados. Situación actual en el ámbito de la Unión Europea*. Valencia: Tirant Lo Blanch, 2018. 321.-336. orr. ISBN: 978-84-9190-320-8.
- MANGIARACINA, Annalisa. “A New and Controversial Scenario in the Gathering of

- Evidence at the European Level: The Proposal for a Directive on the European Investigation Order”. *Utrecht Law Review*. 2014, 10 (1), 113.-133. orr. doi: <http://doi.org/10.18352/ulr.260>
- MARTÍN GARCÍA, Antonio Luis, & BUJOSA VADELL, Lorenzo. *La obtención de prueba en materia penal en la Unión Europea*. Barcelona: Atelier, 2016. ISBN: 9788416652099.
- MARTÍNEZ GARCÍA, Elena. *La orden europea de investigación: actos de investigación, ilicitud de la prueba y cooperación judicial transfronteriza*. Valencia: Tirant Lo Blanch, 2016. ISBN: 978-84-9119-114-8.
- MARTÍNEZ GARCÍA, Elena. “La orden europea de investigación”. GONZÁLEZ CANO, María Isabel (Zuz). *Integración Europea y Justicia Penal*. Valencia: Tirant lo Blanch, 2018. 403.-435. orr. ISBN: 978-84-9190-178-5.
- MORÁN MARTÍNEZ, Rosa Ana. “Obtención y utilización de la prueba transnacional”. *Revista de Derecho Penal*. 2010, 30. zk, 79.-102. orr. ISSN: 1576-9763.
- ORMAZÁBAL SÁNCHEZ, Guillermo. “La formación del Espacio Judicial Europeo en materia penal y el principio de mutuo reconocimiento. Especial referencia a la extradición y al mutuo reconocimiento de pruebas”. ARMENTA DEU, Teresa & GASCÓN INCHAUSTI, Fernando (Zuzk). *El Derecho Procesal Penal en la Unión Europea. Tendencias actuales y perspectivas de futuro*. Madrid: Colex, 2006. 37.-73. orr. ISBN: 84-8342-007-4.
- ORMAZÁBAL SÁNCHEZ, Guillermo. “La prueba penal en el Espacio judicial europeo. Asistencia judicial y mutuo reconocimiento”. *La Ley Penal*. 2010, 74. zk. ISSN: 1697-5758.
- PILLADO GONZÁLEZ, Esther. “Los motivos de denegación del reconocimiento y la ejecución por las autoridades españolas de una orden europea de investigación que requiera medidas específicas de investigación”. JIMÉNEZ CONDE, Fernando (Zuz). *Adaptación del Derecho procesal español a la normativa europea y a su interpretación por los tribunales*. Valencia: Tirant Lo Blanch, 2018. ISBN: 978-84-9190-949-1.
- RODRÍGUEZ-MEDEL NIETO, Carmen. *Obtención y admisibilidad en España de la prueba penal transfronteriza: de las comisiones rogatorias a la orden europea de investigación*. Cizur Menor: Aranzadi, 2016. ISBN: 978-84-9135-211-2.

- ROMERO PRADAS, María Isabel. “La prueba penal en Europa, una cuestión compleja. La orden europea de investigación como nuevo instrumento de obtención de pruebas en procesos penales transnacionales y su próxima incorporación al Derecho español”. GONZÁLEZ CANO, María Isabel (Zuz). *Integración Europea y Justicia Penal*. Valencia: Tirant lo Blanch, 2018. 343.-402. orr. ISBN: 978-84-9190-178-5.
- SALCEDO VELASCO, Andrés. “Orden Europea de Embargo Preventivo y Aseguramiento de Pruebas, Decomiso y Exhorto europeo”. CARMONA RUANO, Miguel; GONZÁLEZ VEGA, Ignacio: & MORENO CATENA, Víctor Manuel (Zuzk). *Cooperación judicial penal en Europa*. Madril: Dykinson, 2013. 611.-648. orr. ISBN: 978-84-9031-776-1.
- TINOCO PASTRANA, Ángel. “La transposición de la orden europea de investigación en materia penal en el ordenamiento español”. *Freedom, Security & Justice: European Legal Studies*. 2018, 3.zk, 116.-145. orr. ISSN-e: 2532-2079.
- VOGEL, Joaquim. “La prueba transnacional en el proceso penal: un marco para la teoría y praxis”. MORENO CATENA, Víctor Manuel & ARROYO ZAPATERO, Luis. *La Prueba en el Espacio Europeo de Libertad, Seguridad y Justicia Penal*. Nafarroa: Aranzadi, 2006. 45.-90. orr. ISBN: 84-8355-083-0.

ARAUDIA

- 1959ko apirilaren 20ko Europar Akordioa, zigor-gaietan elkarrenganako laguntzako.
- 1990eko ekainak 19ko Schengen Akordioaren Aplikaziorako Hitzarmena, 1985eko ekainak 14ko Schengen Akordioaren inplementazioari buruzkoa.
- 2000ko maiatzaren 29ko Zigor arloko Laguntza Judizialari buruzko Europar Hitzarmena.
- 23/2014 Legea, azaroaren 20koa, Europar Batasunean zigor-arloko ebazpenak elkarri aitortzeari buruzkoa.
- 3/2018 Legea, ekainaren 11koa, Europar Batasunean zigor-arloko ebazpenak elkarri aitortzeari buruzko azaroaren 20ko 23/2014 Legea aldatzen duena Europako Ikerketa Agindua arautzeko.
- Amsterdameko Ituna, 1997ko urriak 2koa.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko apirilaren 3ko 2014/41/EB
Zuzentaraua, zigor-arloko Europako ikerketa-aginduari buruzkoa.

Europar Batasuneko Funtzionamendu Hitzarmena.

Europar Batasuneko Hitzarmena.

Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutuna.

Kontseiluaren 2002/465/JAI EE, 2002ko ekainak 13koa, Ikerketa-talde bateratuei
buruzkoa.

Kontseiluaren 2003/577/JAI EE, 2003ko uztailaren 22koa, EBeko ondasunen
prebentziozko enbargoa edo frogen segurtatzea eskatzen duten ebazpenei
buruzkoa.

Kontseiluaren 2008/978/JAI EE, abenduak 18koa, zigor arloko prozeduretara
bideratutako objektuak, dokumentuak eta datuak biltzeko frogak lortzeko europar
exhortoari buruzkoa.

Lisboako Ituna, 2007ko abenduak 13koa.

Prozedura Kriminaleko Legea, 1882ko irailak 14ko Errege Dekretua.